

Asier Ena eta Maite Lazkano

Garaile Moises
Azpiazu sariketan
KULTURA, 24



Mondrak eta UDAk irabazi egin dute etxean

Arrasatearrak lidertzan daude
Zarautzi 2-0 irabazi eta gero
KIROLA, 12-13

Iñigo Argandoña

Gros Xake
taldeko jokalaria
KIROLA, 21



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko irailaren 12a • 2. urtea • 69. zenbakia • 0,90 euro

Lehenengoz egindako herri afariak harrera beroa izan du

Euriak hainbat ekitaldi lekuz aldatu beharra eragin badu ere, pozik igaro dituzte jaiak gatzagarrek

Behin baino gehiagotan jo dute pilotalekuaren aterpera aurten-go jaietan gatzagarrek. Euria egin arren, ordea, bapo gozatu dituzte herriko jaiak asteburu honetan.

Umeak izan dira jaietako protagonista handiak; izan ere, bizpahiru ekitaldi izan dituzte aukeran egunero. Orain eskolara bueltatzeko garaia da.

HERRI AFARIA

Bazkaria egin ordez herri afaria egin dute aurten eta 140 lagun inguru elkartu ziren zapatuan

BISITA INTERESGARRIA

Karra Elejalde zinemagile gatzagarra herriko jaietan izan zen. Euriak ordubete atzeratu zuen ekitaldia

UMEAK PROTAGONISTA

Bonba japoniarrak, haur parkea, txotxongiloak, magia eta animalia ikuskizunak barra-barra

MUSIKA

Rock doinuak entzun ziren eguaztenean eta dantzarako aukera egon zen, berriz, zapatu gauean

ELKARRIZKETA



KARRA ELEJALDE |
AKTOREA

"Airbag filmaren bigarren zatia idazten ari naiz, eta hori primizia da!"

"Petroetaraino nengoen *España va bien* hura behin eta berriz entzuteaz"

"Gatzagako jaietan zerbait egitea proposatu zidatenean asko poztu nintzen"

KULTURA, 22-23



LARRAITZ ZEBERIO

EGUNERO JOLAS EGITEKO AUKERA IZAN DUTE UMEEK

"Gatzagan ume asko dago", azaldu digu Jon Sasiain kultura teknikariak. Hori dela eta, jaiak antolatzerakoan egunero umeendako bizpahiru ekitaldi prestatzeko erabakia hartu zuten. Gatzagako haur parkean umeek ez dituzte ilara amaigabeak itxaroten. Domeka goizeko Martxel magoaren saioan, esaterako, ia ume guztiek hartu zuten parte. Herri txiki batean bizitzeak dituen abantailak! 2-3

KMK '05ek boluntarioak behar ditu

Jai egunean muntaketa lana antolatzeko batzarra deitu dute egunean 9

Eguenean San Martin jaiak hasiko dira Bergaran

 8

GEUREAN

- Bergarako San Martin ferriako sari nagusiak ibarretik kanpora joan ziren | 8
- Aldundiak ibarreko hiru errepidetako seinaleak zein bide-markak berrituko ditu | 7

Gandiaga
Topagunea ohore
guztiekin
inauguratu zuten
egubakoitzean | 4-5

ANDRAMAIXAK GATZAGAN



AINZANE AGIRRE

Gatzagako umeez asko gozatu dute herriko jaietan. Bonba japoniarrak, jolas parkeak, txotxongiloak, magia saioak... Ekitaldi bat baino gehiago izan dute aukeran egunero.

GATZAGAKO ANDRAMARI JAIK | HERRI AFARIAK ETA KARRA ELEJALDEREN EMANALDIK BILDU DUTE JENDE GEHIEN JAIETAN

Euria izan da gatzagarren buruhauste nagusia aurtengo Andramaixetan

Aurrerantzean herri afaria egingo dute Leintz Gatzagako jaietan. Aurten egin dute lehen aldiz ohiko bazkariaren ordeaz eta aurreikuspen guztiak gainditu dira

Larraitz Zeberio

Atzo, domeka, agurtu zituzten herriko jaiak gatzagarrek. Euriak ezuste bat baino gehiago eman ditu aurten Andramaixetan. Behin baino gehiagotan harrapatu ditu betebete herriko plazan. Ez du euri askorik egin, baina pilotalekua inoiz baino preziatuagoa izan da aurten. "Karra Elejalderen emanaldiarekin, esaterako, ilusio han-

dia genuen herrian", azaldu digu Jon Sasiain kultura teknikariak. "Dena prest geneukan plazan, baina hastekotan ginela euria hasi zuen. Guztia kendu eta frontoian muntatzeko ordubete behar izan genuen. Pena handia, benetan".

NOBEDADEA, HERRI AFARIA
Herri bazkaria egin izan dute beti Gatzagako jaietan. Aurten, ordea, afaria antolatu du Udalak eta inoiz

baino jende gehiago bildu da. "Ehun bat lagunendako afaria geneukan prestatuta. Azken orduan, ordea, jendea biltzen hasi zen eta aurreikuspen guztiak gainditu ziren", esan digu Jonek. Kultura teknikariak bereziki eskertu nahi ditu Sorginak zein Ekipotan elkarteak eta Periko sukaldaria. "Ez genuen inor etxera bidali eta konpondu egin ziren denei afaltzen emateko. Lan bikaina egin dute, benetan". Datorren urtean ere herri afaria antolatuko dela aurreratu digu Jonek.

GAUEZ JENDE GUTXI

Egubakoitz gauean rock kontzertua egin zen Leintz Gatzagan. Arian Rock, 23F, Show Business eta Malenkonia taldeak aritu ziren. "Aurreko urteetan jende

gehiago etorri izan da rock kontzertura", aipatu digu Jon Sasiainek. "Euria ari zuen eta horregatik etorriko zen jende gutxi".

Udalak Sorginak, Ekipotan eta Periko sukaldaria eskertu nahi ditu bereziki

Hilaren 17an jubilatuek triki poteoa, bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte

Zapatuan giro hobea zegoen eta Haitzama taldeak arrakasta gehiago izan zuen. "Giro oso ona egon zen plazan. Dantzaldia laburra egin zitzaigun askori", esan digu Jonek.

Kultura teknikariak, ordea, ez du ulertzen zergatik ateratzen den hain jende gutxi gauez Leintz Gatzagan. "Egunez jende asko ibiltzen da. Haur jokoetara herritar asko etortzen da. Gauez, aldiz, gatzagar gutxi animatzen da plazara".

Kirolak ere bere tartea izan du Leintz Gatzagan. "Domekan trial-sineko txapeldun Diego Barrio genuen etortzekoa baina ez da agertu", esan digu Jonek. Hori izan da bertan behera gelditu den ekitaldi bakarra. Eurria egin arren gainerako guztiak egin dira.

ANDRAMAIXAK GATZAGAN

• GATZAGARREK BAPO GOZATU DUTE HERRIKO JAIETAN



GORRITIREN ANIMALIAK. Zapatu goizean arrakasta handia izan zuten Gorritiren animaliek. Besteak beste pottokak, txerria eta oilarrak atera zituen abeltzainak herriko plazara. Sokamuturra ere egin da aurten Gatzagako Andramaixetan, baina adin txikiko lasterkariendako. Urtebeteko hiru txekor ekarri zituen Gorritik eta pilotaleku aurrean prestatutako behin-behineko zezen-plaza lasterkari ausartekin laster bete zen. Txekor mantoak atera zituen Gorritik, baina pare bat ezuste eman zuten Gatzagan.



KILIKIAK ETA ERRALDOIAK. Arrasateko gaitariek lagunduta dantza ugari egin zuten herriko kaleetan barrena argazkian dituzuen bi erraldoiek. Udaletxetik abiatu ziren eta hainbat geldione egin zituzten Gatzagako tabernetan eta txosnan. Txikien gozamerako inguruan ibili ziren herriko lau kilikiak. Arin atera ziren baina lan handia izan zuten herriko ume guztien deialdiei erantzuten. Sugandilen moduan mugitzen dira Gatzagako umeak herrian eta buruhandiek komeriak izan zituzten harrapatzeko.



MUS TXAPELKETA. Egubakoitz arratsaldean jokatu zen Leintz Gatzagako mus txapelketa. 28 bikote, guztiak gizonezkoak, aurkeztu ziren Gatzaga elkarteak antolatutako hitzordura. Irabazleak, Juan M^a Makazaga eta Jose Ramon Perez izan ziren, azken hau herriko alkatea. Bakoitzak 135 euro eta jaki goxoz beteriko otzara eraman zuten etxera. Parte-hartzaileak arratsaldeko 16:00etan hasi ziren jokoan Toki-Eder elkarte gastronomikoan eta 19:30ak aldera amaitu zen txapelketa.




HERRI AFARIA. Herri bazkaria egin izan dute beti gatzagarrek Andramaixetan, baina aurten herri afariaren aldeko apustua egin du Udalak. 138 lagun elkartu ziren zapatu gauean frontoian antolatutako afarian. Gatzagako Sorginek prestatutako entsalada jan zuten lehenengo eta, jarraian, Periko buru zutela Ekipotan taldeak gertatutako bildotsa eta saiheskia. Umorea izan zen nagusi afarian eta herritarren arteko hitzordu polita izan zen. Errepikatzeko modukoa, bai horixe!

• UMEAK IZAN DIRA PROTAGONISTA JAIETAN



ITZIAR, JONE ETA GEMA |
LEINTZ GATZAGA

Herriko jaiak bikainak direla esan zigun hirukoteak. Bonba japoniarretara poltsa eta guzti etorri ziren gainera. "Gorritiren animaliak gustatzen zaizkigu gehien. Lehen ere ikusi izan ditugu".



XABI ETA OIER | LAPUEBLA
DE LABARCA ETA OÑATI

Familia bisitatzera etortzen dira jaietan. "Festa politak dira baina bonba japoniarrak txarrak dira aurten. Jolasak apurtu egiten dira eztanda".



OIHANE |
GATZAGA

"Bonba japoniarretako jolasak frontoiko jolasak frontoiko teilatuan gelditzen dira aurten", kexatu zitzaigun neskatoa.



IÑIGO, ASIER ETA XABI |
ESKORIATZA ETA MARULANDA

"Umeendako gauza asko antolatzen dituzte". Xabik eguaztenean hasi zituen jaiak. Iñigo eta Asier asteburu pasa etorri ziren. "Neska gutxi etortzen da eta gutxi ligitzen da Gatzagan", aitortu ziguten.

LAN ESKAINTZA

Etxetresna elektrikoak
saltzen dituen denda batek

ENTREGATZE
LANAK EGITEKO

mutil gaztea behar du.

Interesatuok deitu:
943 77 00 34

ARANTZAZU | GANDIAGA TOPAGUNEA INAUGURATU ZUTEN GIPUZKOAKO ZAINDARIAREN EGUNEAN

Gandiaga topagunearen inaugurazioak jende gehiago ekarri zuen Arantzazura

Lau urteren ostean, egubakoitzean inauguratu zuten Gandiaga Topagunea frantziskotarrek

Arantzazuko basilika jendez gainezka egon zen bere 50. urteurreneko egunean

Marijo Deogracias

Bezperako eguraldia ikusita, gutxi espero genuen eguzkiak Arantzazuko bazter guztiak bertuko zituenik Gipuzkoako zaindariaren egunean. Baina, fededun asko elkartu zen Arantzazun egubakoitzean eta horrek ere eraginik izango zuen.

Egun berezia izan zen, arrazoi askorengatik. Batetik, eta lehenengo eta behin, Arantzazuko amaren eguna ospatzen zela irailaren 9an; bigarrenik, Arantzazuko basilikaren 50. urteurrena betetzen zela eta hirugarrenik, Gandiaga Topagunea inauguratzeko egun legez aukeratu zutela frantziskotarrek gipuzkoarren zaindariaren eguna. Hortaz, ikusmina itzela izan zen Arantzazun. Auto ilara izugarria zen goizeko 11etarako (aparkalekuak gainezka, errepidearen alde bietan laga behar izan zituzten autoak erromesek) eta jendea ere nahi beste zebilen basilikaren eta Gandiaga Topagunearen inguruan. Agintariak

11:30etarako iritsi ziren basilika aurrera. Han zituzten zain euskal preso senide eta lagunak eta lehendakariari eskura eman zioten, "euskal preso enoera larriaren berri zuzenean izan dezan" gutuna. Elkarretaratzea egin zuten Arantzazun eta ekitaldiak amaitu bitartean 100 bat lagun egon ziren pankartekin hasieran eta preso argazkiekin gero.

BASILIKA GAINEZKA

Eguerdiko meza nagusian basilika leporaino bete zen. Juan Maria Uriarte gotzainak eman zuen meza eta, agintarien aurrean zegoela aprobetxatuz, bakearen alde behar dena eta diskrezioz egiteko eskatu zion. Meza ostean, Iñaki Beristain frantziskotarrak hartu zuen hitza, Gandiaga Topagunearen inaugurazioa zela eta. Jendeari eraikin berrira joateko eskatu zion, han izango zelako inaugurazioaren ostean luncha.

Kostata, baina azkenean jende multzo polita batu zen Gandiaga Topaguneko areto nagusi-

• ZER IRUDITU ZAIZUE GANDIAGA TOPAGUNEA?



MIREN AZKARATEI | JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUA

"Gandiagaren bizitzako hiru ardatzak batzen dira hemen"

"Amaituta ikustek sekulako poza eragin dit.

Arantzazuk bete dituen 500 urteen eta basilikaren 50 urteen ondoren egindako gogoetatik sortutako proiektua da eta oso egokia da. Izena ere biribila du Bitoriano Gandiagaren bizitzaren hiru ardatzak batzen ditu: fedea, kultura eta izadia. Artearen eta euskal zaletasunaren topagunea da Gandiaga Topagunea."



JOXE JOAN GLEZ DE TXABARRI | GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

"Giro berriei erantzuteko ahalegina da Gandiaga"

"Frantziskotarrek egindako gogoeten ondorioa da Topagunea, eta orain 50 urte zartada suposatu zuena orain giro berriei erantzuteko egiten den ahalegina da. Gipuzkoako elizak egokiera berriak sortu ditu. Izenetik hasita, natura, artea, fedea eta gogoeta uztartzen ditu.

Euskaraz ondo esaten den legez, izenak izanarekin bete-bete bat egiten du hemen."



MIREN ELGARRESTA | ARTZAIN MUNDUKO KOORDINATZAILEA

"Artzain museo bizia egongo da hemen, lurralde-museoa"

"Sartzerakoan inpresioa izugarria izan da eta kontuan izanik Arantzazuk artzaintzarekin izan duen lotura estua topaguneak lekua egin dio artzaintzari. Artzain munduaren egoitza izango da eta hemen egingo da artzainen munduko 3. topagunea. Artzaintzaren museo bizia deitzen dioguna ere hemen izango da; kontzeptualki lurralde museo esaten duguna."



Oñatiko txistulariek zabaldu zieten bidea agin

ra. Orain dela hilabete gutxi ere han izan ziren Juan Jose Ibarretxe eta Iñaki Beristain, besteak beste, MCCko sortzaileei egindako omenaldian.

Orduan Gandiaga Topagunea erabat amaitu barik zegoen. Egubakoitzean, ordea, ohore guz-

• INAUGURAZIO EKITALDIK EKARRITAKOAK



BEDEINKAPENA. 13:30ak jota ziren Gandiaga Topagunera iristerako, meza nagusiaren ostean. Gipuzkoako aita probintzial Jose Maria Arregi eta Arantzazuko nagusi Telesforo Zuriarrainek lagundu zituzten agintariak bertara eta Jose Maria Arregik bedeinkatu zuen Topagunea.



ZINTA MOZKETA. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egin zuen ohorezko zinta mozketa bedeinkapenaren ostean. Gipuzkoako Aldun Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, BBNNko presidente Leire Ereño eta Oñatiko alkate Andoni Gartziari eman zion zinta zati bana.



OÑATIKO BANDA. Oñatiko Bandak eman zion ondo etorria Gandiaga Topagunera sartu zirenei, inaugurazio egunean. Inaxio Ibarrendoren zuzendaritzapean *Guazen Arantzazura*, *Arraunlariak*, *Donostia*, *Certamen Levantino* eta *Arantzazuko* piezak jo zituen bandak.

ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA



MARLJO DEGRACIAS

Zenbakiak

4

2001ean hasi ziren frantziskotarrak Arantzazuko seminarioa eta inguruko azpiegitura birmoldatzen. Lau urteren bueltan amaitu dute.

7.800

Obra osoaren azken gastua 7.801 milioi euro izan da. Horretatik 2.392 euro pasatxo frantziskotarrek jarri dituzte.

5.300

Lanak egiteko Eusko Jaurilaritzak 2.283 euro jarri ditu; Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, 3.125 euro jarri ditu.

50

Arantzazuko basilikaren 50. urteurrena ospatu zen Arantzazuren egunean, irailaren 9an.

2

Topaguneak bi solairu ditu. Behekoan bi frontoi eta komunak (1.300m²); goikoan 5 areto.

Esandakoak

“Gaurtik irekita geratzen den Gandiaga Topagunea, pertsona, talde eta erakunde ezberdinendako topagune izan bedi, fedearen eta artearen arteko lotura bizkortzeko”.

JUAN MARIA URIARTE |
DONOSTIAKO GOTZAINA

“Lehendakariari gutuna bidali genion esaten sufrimendua izugarria dela eta egoera geroz eta dramatikoagoa dela. Politikariek hitz borobilak esaten dituzte, baina egoerak hor dirau”.

IÑAKI USANDIZAGA |
ETXERAT

tariei Gandiaga Topaguneraino.

tiekin zabalik geratu zen. Aurre-
rantzean, hainbat topaketetara-
ko lekua izango da, bai eta
Artzain Munduaren egoitza ere.
Gainera, eraikinaren beheko
aldean oparien denda berria eta
Debagoieneko turismo bulegoa
jarri dituzte.

Arantzazuk, hara batu ziren
guztien esanetan, badu etorki-
zunari begiratzeko beste modu
bat eta Bitoriano Gandiaga zenak
zabaldu zuen fedea, artea eta iza-
dia batzen dituen gune osotu
bihurtu da; frantziskotarrek dio-
ten legez, “Gandiagaren figurak

euskal gizartearen izandako harre-
ra ikusita, eraikin berreginari
Gandiaga Topagunea izena eman
zaio, berak kezka handiz bizi
izan baitzuen fedearen eta kul-
turaren arteko elkarrikeria”.

Arantzazuko eraikin berrian
Eusko Jaurilaritzak, Gipuzkoako

Foru Aldundiak eta Oñatiko Uda-
lak parte-hartze zuzena izan dute.
Arantzazuko Inguruaren Berri-
kuntzarako obra deitu den horren
arkitektoa Migel Alonso del Val
izan da eta orotara 7.801.880 euro-
ko aurrekontua izan du eraikin
berriak.



OHOREZKO BRINDISA. Inaugurazio on guztiek legez, Gandiaga Topa-
gunekoak ere izan zuen ohorezko brindisa. Zinta mozketaren oste-
an, luntxa zegoen zain Topaguneko areto nagusian. Ardoa, ura, sarga-
doa... eta gero pintxo txiki, baina goxoak. Irudian Juan Jose Ibarre-
txe harrapatu genuen bandako zuzendaria agurtzera zihoala.



ELKARRETARATZEA. Agintariak iritsi orduko, euskal presoen seni-
de eta lagunek elkarretaratzea egin zuten Arantzazun. Euskal pre-
soak Euskal Herrira pankarta eta presoen argazki guztiak erakutsi
zituzten. “Egoera geroz eta dramatikoagoa” dela adierazi zuten eta
hori adierazteko lehendakariari gutuna helarazi diotela ere bai.



AINTZANE AGIRRE

Landan elkartu ziren urtero bezala, eta eguraldiari beldur bazioten ere 150 lagun batu ziren.

Aurtengoan ezin izan dute sardinarik erre suteak saihesteko debekuarengatik

Arrasateko Corazon de Encina elkarteko 150 bat kide batu ziren Landan, zapatuan, Extremadura eguna ospatzeko

M.B.

“Espero baino jende gehiago batu gara”, esan zigun Arrasateko Corazon de Encina elkarteko funtzio presidentea Jesus Rodriguezek. Extremadura eguna izan zen irailaren 8an eta elkarteko kideek zapatuan ospatu zuten, urtero egiten duten bezala, Landan. Autobusez joan ziren goizetik eta egubakoitzean egindako euriagatik beldur baziren ere, “eguraldiak asko lagundu digu eta 150 bat kide batu gara”, azaldu zuen Rodriguezek.

Goizean hainbat lehiaketa egin zituzten: gazpatxo, gazta, patata tortilla, sandia eta meloi lehiaketak, esaterako. Eta arratsaldean, berriz, jolasak: kartetan eta ginkanan jardun zuten, besteak beste.

**Azaroaren 19an
egoitzaren 12.
urtemuga
ospatuko dute**

SARDINARIK GABEKO EGUNA

Bazkal orduan sardina erreak jatea ohituretako bat den arren, aurtengoa ezin izan dute halakorik egin Rodriguezek azaldu zuen moduan “sute arriskua dela eta, horiek saihesteko aisialdi guneetan sua egiteko jarri duten debekuarengatik”. Hori horrela, norberak etxetik eramandakoarekin konformatu behar izan zuten. Ospakizunari bukaera emateko 20:30ean autobusa hartu eta elkartera joan ziren guztiak.

Hurrengo ospakizun handia azaroaren 19an izango dute. Egun horretan ospatuko dute elkarteak Araba etorbidean duen egoitzaren inaugurazioaren 12. urtemuga. Izan ere, elkarteak 1991. urtean eratu bazen ere, 1993. urtera arte ez zuten egoitzarik izan.

• ESKORIATZAN AUTOBIDEAK KALTETUTAKOAK



GOIATZ ARANA

SUMINA BIDEGIKO ZUZENDARIAREN HITZENGATIK

Prentsaurrekoa egin zuen egubakoitzean Eskoriatzan autopistak kaltetutako elkarteak, Arrasaten. Bidegiako zuzendari nagusi Nestor Aranak publikoki egindako deklarazioen aurrean “ondozik sakonena” erakutsi nahi izan zuten. Baita, “Aranaren enpresak Eskoriatzan banatu zuen propaganda iraingarriaren aurrean” euren “haserretik sakonena” erakutsi ere. Gogora ekarri zuten, bestalde, autobidearen auzian “oraindik ere erantzunik gabe dauden gai asko” dagoela eta “gezurra” dela kaltetutako jabeek euren ordezkariengandik mehatxu edo manipulaziorik jaso izana.

• HILTEGIAREN ALDEKO PROTESTA BERGARAN



M.B.

HILTEGIAREN KUDEAKETA EGOKIA ESKATU ZUTEN

Hiltegia Bizirik taldeak ez du uste Mankomunitateak “hiltegiaren kudeaketa egokia egiteko asmoa” duenik, zapatuan, San Martin ferian egindako elkarretaratzean azaldu zuten bezala. Euren ustez, hiltegiaren etorkizuna ziurtatzeko zera beharko litzateke: helburuak ondo finkatuko dituen eta orain arteko zorrak kitatuko dituen gestio plana definitzea; gerente independente bat kontratatzea; instalazioak berritzea eta inbertsio plangintza bat definitzea; langile azpikontratatuaren egoera finkatzea eta sektorearen parte-hartzea Mankomunitatearen organoen bidez ziurtatzea.

- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK - BAINUAK - ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.

Labegarieta Industrialdea BERGARA.

Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.





MIRARI ALTUBE

Urteroko hitzordua izaten da Kurtzebarriko gaina aretxabaletarrendako. Argazkian, Areantzatik igotakoak.

Mendirako giro ona izan zuten Kurtzebarri Egunean

Atzo, domeka, ospatu zuten Kurtzebarri Eguna Aretxabaletan. Tontorrean haize hotza egin arren ez zuen euririk egin

Larraitz Zeberio

“Haize hotza izan dugu, baina mendian ibiltzeko giro oso ona”, esan digu Julen Abasolo areantzarrak. Bi ordutan egin zuten atzo, domeka, Kurtzebarriko igotza areantzarrak. Haiekin batera urteroko hitzorduan parte hartzeko asmoz mendira irten-

dako hainbat aretxabaletar igo ziren. Gailurrean Murruxio Mendi elkarteko kideek prestatutako salda eta txorizoa dastatu zituzten. Hildako mendizaleen aldeko meza, berriz, Goio Eskibel biateristak eman zuten. Iaz baino jende gutxiago igo da aurtentean, tartean Dantzari Eguna ere ospatzen zelako herrian.

AREANTZA AUZOKO JAIK

Kurtzebarri Egunearekin batera agurtu dituzte areantzarrak Agorreko Andramaixak. 55 lagun elkartu ziren barrikuko auzo afarian. Dantzaldia ere egin zuten Iñigo soinu-joleak alaituta. Zapatuko jolasetan, berriz, adin guztietako 80 bat pertsona aritu ziren nor baino nor. Parte-hartzaile gazteenak 2 urte zituen eta nagusienak 82.

Festak, baina, bukatu dira eta areantzarrak gorde dute datorren urtera arte jaietako Martin Kabarrixaren panpina.

Debagoieneko hiru errepidetan seinaleak zein bide-markak berrituko dira

Lanok Legutio-Arrasate, Urretxu-Bergara zein Eibar-Kanpanzar bide zatietan egingo dira. Aldundiaren egitasmoa da eta hiru hilabeteko epean egingo dituzte

Larraitz Zeberio

Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuak jakinarazi duenez mantenu lanak egingo dituzte Debagoieneko hiru errepide zatitan. Lanok GI-2620 (Legutio-Arrasate, Aramaiotik), GI-2630 (Urretxu-Bergara, Legazpitik) eta GI-2639 (Kanpanzar-Eibar, Elgetatik) bide zatietan egingo dira. Aldundiak adierazi du hiru hilabeteko epean gauzatuko direla.

BIDE MARKAK BERRITU

Seinale horizontalak zein bide-markak berrituko dira 43,1 kilometroko luzera duten hiru errepide zatietan. Lanok bide-markak ezabatuta daudelako eta zirkulazioaren, eguraldiaren eta errepideko zoruaren sendotzeko lanen eraginez bertako seinaleen adierapen gaitasuna ere galduta dagoelako egingo dituzte. Proiektuak Gipuzkoa osoko beste 18 errepide zati ere hartzen ditu. Egitasmoak, guz-

tira, lehenetsuneko sareko, oinarriko sareko eta eskualdearteko sareko 295,3 kilometrotan izango du eragina. Aurrekontua 722.000 euro da.

ERAGOZPENAK SAIHESTEKO

Marka zaharrak kentzea izango da lehen pausoa. Horretarako, errepideko norabide bat itxi beharko dute, baino gaez egingo dira lanok. Ondotik, margotze lanen txanda etorriko da.

Zirkulazioa ez oztopatzeko pintura termoplastiko beroa erabiliko dute. Gehiago irauten du eta bidea pintatu bezain laster ireki daiteke. Pintura termoplastikoa margotzerakoan duen tenperatura altuaren ondorioz pintatutako bidea segundo gutxiren buruan ireki daiteke eta ez dira ohiko 20 minutu itxaron beharko pintura lehortu arte.

Marka zaharrak kentzeko norabide bat itxiko da. Gaez egingo dira lanok


Pintura termoplastikoari esker pintatutako bidea berehala ireki ahal izango da

• ARAMAIOKO ANDRA MARI IBABE KOFRADIA

KOFRADIAKO KIDEEK URTEKO BATZARRA ETA BAZKARIA EGIN DUTE

Atzo, domeka, urteko batzarra eta bazkaria egin zituzten Aramaioko Andra Mari Ibabe kofradiako kideek. 155 lagunek osatzen dute, 50 urtetik hasi eta 90era bitartekoak. 115 Aramaiokoak dira eta gainerakoak, Aramaion bizi ez arren badute loturarik herriarekin.

75 batu ziren atzo, eta meza entzun ondoren, batzarra egin zuten. Besteak beste berba egin zuten ermita ondoko parkean horma bat jasotzearen beharraz. Batik bat, arriskua saihesteko, han jolasean ume asko ibiltzen delako. Batzarraren ondoren, bazkari ederra egin zuten.



AINZANE AGIRRE

BERGARAKO SAN MARTIN JAIAK | EGUENETIK EGUBAKOITZERA BITARTEAN EKITALDI UGARI EGONGO DIRA

Lehenengo sariak ibarretik kanpora joan ziren San Martin ferian

Ordiziako irabazleak, Elgoibarko Jesus Ansola gaztagileak, eraman zuen lehenengo saria gazta lehiaketan

M.B.

Pozik joan ziren zapatuan etxera Manuel Iradi, Jose Manuel Zabalegi, Begoña Arteaga eta Jesus Ansola. Eurak izan ziren lehen saria jaso zutenak San Martin ferian, fruta, barazki, lore eta gazta sailetan, hurrenez hurren.

Hamabost barazki ekoizle hartu zuten parte lehiaketan, hamar fruta ekoizle, lore moztuetan bakarrak eta gazta lehiaketan, berriz, 36 gaztagilek.

Ohi bezala, bi gunetan banatuta egon zen feria: San Martin plazan egon ziren fruta, barazki eta lore moztuen lehiaketan parte hartu zuten ekoizleak. Horrez gain, Giokelako herriko hiru harakinek emandako odolostea dastatzeko txosna ere egon zen plazan eta baita Kilometroetako salmenta postua ere. Seminarioan, berriz, lehiaketatik kanpo joandako saltzaileak eta talogileak izan ziren.

IBARREKO EKOIZLEEI

AUKERA EMATEA HELBURU

Feriarren helburua da eskualdeko ekoizleei aukera ematea euren produktuak jendeari erakutsi eta saltzeko. Hala eta guztiz ere, Debagoiena industriari oso lotuta dagoen ibarra denez, feriarren



Ekoizleak pozik zeuden nahikotxo saldu zutelako zapatuko ferian.

antolatzaileak behartuta egoten dira kanpotik ere ekoizleak ekartzera azokaren mailari eutsi ahal izateko. Debagoieneko partehartzaile kopuruari dagokionez, zapatuan bost barazki ekoizle, bi fruta ekoizle eta zortzi gaztagile egon ziren.

Sariketari dagokionez, barazki, fruta eta gazta lehiaketetako lehenengo sariak kanpora joan ziren arren, bigarren eta hirugarren sarietako lau ibarrean geratu ziren. Loreetan, berriz, Bergarako Ubera auzoan geratu zen lehen saria

Fruta, barazki eta lore lehiaketan 26 ekoizle hartu zuten parte; gazta lehiaketan, 36k

Bigarren eta hirugarren sarietako lau ibarreko ekoizleak eraman zituzten

Irabazleak

BARAZKIAK

1. Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
2. Tomas Larrañaga (Antzuola)
3. Daniel Ormazabal (Anoeta)

FRUTAK

1. Manuel Iradi (Hernani)
2. Kontxita Izagirre (Antzuola)
3. Sonia Isasi (Gernika)

LOREAK

1. Begoña Arteaga (Bergara)

GAZTA

1. Jesus Ansola (Elgoibar)
1. Patxi Otaegi (Beizama)
1. Nikolas Segurolo (Arantzazu)

Egitaraua

IRAILAK 15

- 19:00: Gazteendako krosa.
- 19:30: Pilota partiduak Udal pilotalekuan. Bergara Hiria txapelketako errebantxa.
- 22:30: Nagusien danborrada.

IRAILAK 16

- 08:30: Diana.
- 09:00: Sokamuturra.
- 11:00: Meza nagusia.
- 12:30: Bandaren kontzertua, San Martin plazan.
- 18:00: Haurren danborrada.
- 22:30: Trapu Zaharra antzerki taldearen *Aterpea* lana, Munibe plazan.
- 23:00: Patxi Perez eta Konpainiaren erromeria.

IRAILAK 17

- 12:00-14:00: Jaima Munibe plazan. Perkusioa eta dantza afrikarrak.
- 14:30: *Txomingeroen* bazkaria, San Martin plazan.
- 16:30-18:30: Eskola alternatiboak, Munibeko jaiman.
- 18:45: Bonba japoniarrak umeendako.
- 23:00: Tuboeskapi eta Makala Sound System taldeen kontzertua, San Martin plazan.

EGUENA 17

- 09:00: Ageriko pintura lehiaketa.
- 09:30: Argazki rallya.
- 09:30: Erreileno eta tostoen kofradiako kapitulua.
- 10:30: San Martin Txirrindulari lasterketa.

• FRUTA, BARAZKIAK, LOREAK ETA GAZTA



FRUTA ETA BARAZKIAK. Fruta eta barazkien kasuan, hamar eta hamabost ekoizle hartu zuten parte lehiaketan. Denetarik ikusi ahal izan genuen: pikuak, madariak, sagarrak, letxugak, tomateak, lekak, intxaurrak... Ekoizleak, gainera, pozik zeuden saldutakoarekin.



LORE MOZTUAK. Lore moztuen kasuan, pertsona bat baino ez zen lehiaketara aurkeztu, Begoña Arteaga uberrara, urtero bezala hutsik egin gabe. Hala eta guztiz ere, lehiaketatik kanpo ikusi ahal izan genituen lore gehiago Seminarioko gunean.



GAZTA LEHIAKETA. Artzaina izatea da lehiaketan parte hartzeko baldintzetako bat, eta zapatuan 36 aurkeztu ziren. Idiazabal Jatorrizko Izendapenerako elkartearekin lankidetzan antolatzen dute eta urtetik urtera partehartzaile gehiago dago.

Albiste izango da

ARRASATE | EGUENEAN, 19:30EAN

Euskal mendizaletasunaren ikus-entzunezkoa Monterronen

Antton Iturrizak euskal mendizaletasunaren gainean egindako ikus-entzunezkoa ikusteko aukera egongo da egunean, 19:30ean, Monterron jauregian. Hilaren 18an, datorren domekan, Besaide eguna da eta horren harira antolatu du ekitaldia Besaide Mendi elkarteak. Horrez gainera, zer ospatu ere badu elkarteak, 50. urte-muga ospatuko dute eta aurten.

Besaide egunean egongo da: meza, elkarteko lehendakariaren hitzaldia eta dantzari eta txistularien saioa, besteak beste. Pintxoak ere banatuko dituzte Kilometroak 05en alde.

ANTZUOLA | 19:00ETAN IZANGO DA BATZARRA

Autorik gabeko eguna aurkeztuko dute gaur, Olanan etxean

Irailaren 22a, autorik gabeko eguna izango da Antzuolan. *Nire autorik gabeko hiria* ekimenaren barruan kokatzen da egitasmoa; eta hura zer den, egun horretan zer egiteko asmoa dagoen azaltzeko, eta zer egin daitekeen zehazteko bilera deitu du Udalak. Gaur, astelehena, izango da, 19:00etan Olanan etxean, eta herriko elkarte eta taldeei egiten die dei.

Ikastaroei dagokienez, gaur hasiko dira erretiratuendako gimnasia eta aerobik ikastaroak. Berrikuntzen artean, masaje eta dantza ikastaroak daude. Masajearena hilaren 29tik abenduaren 22ra izango da; dantza, berriz, urriaren 8an hasiko da eta eskolak zapatutan izango dira. Izenematea hilaren 16an bukatuko da.

DEBAGOIENA | EGUENEAN, ALMEN GUNEAN

Kilometroak jaia antolatzekeo batzarra deitu dute Arizmendikoek

Kilometroak jaia gero eta gertuago dugu. Urriaren 2an izango da eta muntaketa lanetan jardungo dutenendako edo jardun nahi dutenendako bilera deitu dute antolatzaileek, Arizmendi ikastolakoek. Eszenatokiak, karpak eta bestelako azpiegiturak muntatu behar dira festa egunean eta horiek guztiak nola antolatu eta muntatu behar diren azaltzeko da bilera. Eguenean izango da, 18:30ean, Eskoriatzako Almen gunean.

Bestalde, Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak ISO 9001 ziurtagiria jasoko du bihar, martitzena. Agiri hori Euskadiko Ordezkaritzako Zuzendari Luz Enparantzak emango die. Ekitaldia izango da Aretxabaletan, Arizmendi Zerbitzu Orokorren egoitzan, 12:00etan.

ELGETA | 19:00ETAN, LIBURUTEGIAN

Euskara eskolak antolatzekeo batzarra deitu dute egunerako

Ikasturte berrira begira euskara eskolak antolatzekeo asmoz Udalak batzarra deitu du egunerako, hilaren 15erako. 19:00etan izango da, liburutegian, eta Batzar horretan aurrez izena emanda zuten herritarrak batu nahi dituzte.

Dei horren helburua da azterketa txiki bat egitea jakiteko izena eman dutenen maila zein den. Modu horretan, maila bat edo bi egongo diren erabakiko dute arduradunek. Oraingoz hamabi lagunek eman dute izena. Inor interesaturik balego egunean Udala liburutegira joan dadila.

ARETXABALETA | 18:30EAN IZANGO DA

Kultura etxeko lanak esleituko dituzte gaur osoko bilkuran

Aretxabaletako Udalak osoko bilkura egingo du gaur, astelehena, 18:30ean. Besteak beste, kultura etxeko lanak esleituko dituzte bilkuran. Lanon oinarria da kultura etxea birgaitzea eta herriko beharretara egokitzea.


Horrez gain, beste bi gai ere jorratuko ditu gaurko osoko bilkuran Aretxabaletako udalbatzak. Batetik, Cerrajera Valle Leniz dagoen lekuan etxebizitzak egiteko plan bereziaren aurrerapena onartuko dute. Bestetik, Aretxabaleta eta Arrasate artean dagoen errepede azpian pasabide bat egiteko kreditu aldaketa ere onartuko dute.

Hitzorduek

IGERILEKUAK | Arrasateko igerileku klimatizatuak zabalik daude, lurzorua aldatu ondoren

Musakolako kiroldegiko barruko igerilekuak gaur, astelehena, zabaldu dituzte, eta aldagelen zati bat ere bai, lurzorua aldatzeko lanak bukatu ondoren. Lurzorua labainkorregia zelako aldatu behar izan dute. Hasi-eran, Aukeak aurreikusita zuen hilaren 17an zabaltzea berriro igerilekuok, baina lanak garaiz amaitu dituzte eta zabalik daude instalazioak. 07:30etik 21:00etara bitartean daude zabalik aurre-antzean. Musakolako instalazio orokorrak, berriz, 07:30etik 21:30era zabaltzen dituzte.

Sauna, ordea, itxita dago; hango lanekin arazoak sortu zaizkie, eta ez dakite noiz zabaldu ahal izango duten.



ARAMAIO |

• **Bi hitzaldi, batzarra eta txangoa erretiratuendako** Alaiak erretiratu eta pentsioidunen elkarteak hainbat hitzordu ditu aste honetan: bihar, martitzena, ariketa fisikoaz eta osasunaz hitz egingo du Jose Antonio Apraizek kultura etxean, 17:00etan; egunean, hilak 15, batzar nagusia egingo dute, 16:30ean eta 17:00etan; eta irailaren 23an Iruñeara joango dira. Izenematea astean zehar.

ARETXABALETA |

• **Lau kirol ikastaro berri daude aurtengo eskaintzan** Bizkortzea, gimnasia terapeutikoa, bizkarra lantzeko gimnasia eta gorputz kontzientzia ikastaroak daude aurten aukeran; horiez gain, ohiko ikastaroak ere bai. Bestalde, masaje zerbitzua ere zabalik dago. Txanda eskatzeko, bidali mezu bat fisioterapia@goienasport.com helbidera.

ARRASATE |

• **Ehiza txikiko txapelketa egingo dute zapatuan** Ehiza txikiko txapelketa egingo du Leintze elkarteak hilaren 17an, zapatua, Santa Cruz del Pierron. Izena emateko azken eguna da eguaztena.

• **Santa Teresako katekesian izena emateko epea** Gaur, astelehena, zabaldu dute Musakolako Santa Teresako katekesian izena emateko epea.

Horretarako, jo euren egoitzara 17:30etik 18:30era.

• **Galiziara bidaia egingo dute Toki Argiko erretiratuek** Behe-itsasadarrera (Rias Baixas) bidaia egingo dute urriaren 16tik 23ra bitartean. Izena emateko, joan euren egoitzara astelehen, eguazten edo egubakoitzetan (11:30-13:00).

• **Uribarriko erretiratuek Asturiasera joango dira** Bost eguneko irteera egingo dute urrian. 287 euro da, eta izenemate epea da irailaren 24a.

BERGARA |

• **Yoga, pilates eta teniserako izenemate epea Bergaran** Gaur, astelehena, ireki dute yoga, pilates eta teniserako izenemate epea. Horretarako, sartu 18 euro Kutxan edo Euskadiko Kutxan zabaldu dituzten kontuetan.

ELGETA |

• **Tortila lehiaketan izenematea zabalik** Sagardo egunean jokatzeko den tortila lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, irailaren 15era bitartean. Izenematea liburutegian eta Haizean.

DEBAGOIENA |

• **Helduen Heziketa eskolak matrikulazio epea zabaldu du** Hilaren 15era, eguenera, bitartean eman daiteke izena datorren ikasturterako Debagoieneko Helduen Heziketa Ikas-

tetxeetan: Arrasaten, Ferre-rias kaleko 28an (943 77 11 72 da telefonoa); Oñatin, Aita Madina kalean (943 78 35 77); eta Bergaran, Irizar jauregian, Barrenkalean (943 76 44 52).

ESKORIATZA |

• **Gazteendako ikastaroak izango dira asteburuetan** Tai Chi eta malabare ikastaroak antolatu ditu Udala Gazteria Sailak. Asteburu bakarrekoak izango dira. Tai Chi ikastaroa 12-16 urte bitarteko-ek dago zuzenduta, eta malabareena, 15 urtetik gorakoei. Izena emateko, deitu 620 06 31 15 telefono zenbakira.

OÑATI |

• **Yoga hasiera ikastaroa gaur, astelehena, hasiko da** Oñatiko Yoga eta Erlaxazio Eskolak zortzi eguneko hastapen ikastaroa antolatu du. Gaur, astelehena, hasiko da, eta hilaren 22an bukatu. Ordu-tegia da 19:00-20:30. Argibide-etarako, deitu 606 75 76 90 telefonora 18:00etatik 20:00etara (Roman).

• **Bodypump erakustaldia egingo dute bihar, martitzena** Bodypump ikastaroa antolatu du Udala Kirol Sailak, aurten lehenengo aldiz. Erakustaldia egingo dute bihar, martitzena, goizean, Zubikoa kiroldegian. Izenemate epea zabalik dago, horretarako eta gainerako kirol ikastaroetarako.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Zorionak, Monterron

Monterron kultura etxea abuztuan zabalik egon dela eta, txaloak bidali dituzte gure erredakziora Arrasatetik. Horrela dio irakurleak: "Monterron kultura etxea abuztuan zabalik egon da. Zorionak! Arrasatearra naiz, eta benetan eskertu dut liburutegiaren zerbitzua zabalik egotea. Ideia oso ona izan da Arrasateko Monterron kultura etxea abuztu osoko goizetan zabalik egotea. Hemen geratu garenondako mesede handia izan da horrelako zerbitzua abuztuan ere eskura izatea. Gainera, uste dut harrera oso ona izan duela egitasmoak, jende asko ibili da eta liburuak eta DVD edo bideoak hartzen.

Zorionak, bada, Arrasateko Udalari eta bertako langileei eta ea hurrengoan beste herri batzuetako bibliotekak ere zabaltzen dituzten! Seguru beste herrietako jendeak ere eskertuko lukeela.

• Kaleko oharrak zergatik daude gaztelaniaz bakarrik?

Bergarako Goienkalen lanek dira eta horren haritik, irakurle batek aditzera eman digunez, kale horretako dendari batek, bertara heltzeko arazoak tarteko, herriko plazan jarri du dendara heltzeko azalpenen oharra. Eta gure irakurleak dioenez, "Hara zein izan den nire sorpresa, kartela, gaztelania hutsean ikusi dudanean. Eta den-dena erdaratu behar horretan, kalearen izena bera ere gaztelaniaz jarri du", salatu du irakurleak. "Ondo dago, bai, norberak bere negozioa zaintzea, baina bada Bergarako Udalak eskaintzen duen zerbitzu egoki bat, non kartela euskaratzen duten eta kalean eskegitzeko euskarri egokian prestaturik ematen duten: euskara zerbitzua. Hortaz, ondo legoke publiko eta debaldekoa den guztiondako zerbitzu hori guztiek erabiltzea".

Sarean harrapatuta

Bizikletendako aparkalekuak Arrasaten

Bizikletaren erabilera bultzatzeko asmoz aparkalekuak jarriko ditu Arrasateko Udalak. Lehenengo fasean, leku hauetan jarriko dituzte aparkalekuak: Ferrerias kalean, Seber Altuben, Monterronen, Goi Eskola

Politeknikoan, San Viatorren eta Institutuan. Aparkalekuak arrakasta badute, gehiago jarriko dituzte. Aparkalekuak bizikletan ibiltzeko ohitura areagotuko dute? Galdera hori egin dute *Goiena.net*-en.

ORAINDIK ERE BADAGO ZER EGIN HERRIAN

Ez dakit erabilera bultzatzeko ote duten, baina erabiltzen dugunok bizikleta non utzi izango dugu. Uste dut aspaldi egin beharreko lana zela, zerbitzu publikoak eta ikastetxeak dauden lekuetan jarri beharko lirakeke. Erabilpena gehituko litzateke, nahiz eta gaur egun kalean bizikletaz ibiltzeak arriskua ere badakarren.

Hor ere beste lan batzuk egin beharko lirakeke, kale batzuetan autoen erabilpena mugatu, bizikletentzako bideak markatu... badago zer egina.

Txirriinduzale / www.goiena.net

BIZIKLETA AISIALDIRAKO ERABILTZEN DUGU

Gauza zoragarria izango litzateke guztiok bizikletan ibiltzea. Baina tristeza bada ere, gaur egun bizikletak bere lekua dauka gizarte honetan, aisialdia, hain zuzen ere, eta ez garraioa. Hori kontuan hartu behar da. Ni bidegorrien aldekoa naiz.

Puntualiza / www.goiena.net

KULTURA ALDATU BEHARKO GENUKE

Nire bizimodua, herrian bertan, bizikletarekin egiten dut. Lan egiten dudana herri berdinean bizi naizenez ez daukat arazo berezirik egunero bizikletaz joa-

teko. Negu zein uda. Euria egiten duenean oso merkeak diren plastikozko praka eta zira jantzi eta aurrera.

Bizikleten erabilera bultzatzeko edozein erabaki ona da. Bizikletendako aparkalekuak jaretzea ondo dago. Baina bizikletak ez erabiltzearen arazoa ez da azpiegiturarena, kulturarena baizik. Ahal dugun denok bizikleta erabiltzen hasiko bagina, azpiegiturak derrigorrez egin beharko lirakeke.

Erabiltzaile bat / www.goiena.net

DAUDEN ERREPIDEAK KONPONDU LEHENENGO

Denak autoen kontra eta bizikleten alde? Ondo dago hori, baina ondo dakizuen moduan bizikleta batek ez du behar asko betetzen eta nik neuk nahiago dut bidegorri bat egin aurretik dauden bide txarrak hobetzea. Azkenean, bidegorriak egingo dituzte eta poztuko nintzateke. Baina, nire ustetan beti dabilen txirritularia eta distantzia luzeak egiten dituen ez da bide horietan asko ibiliko. Bide horiek herrian alde batetik bestera ibiltzeko direlako, eta nik uste dut Arrasaten horretarako ez dagoela bidegorrien beharrik.

4 / www.goiena.net

HOBE DA BIDEGORRI AZPIEGITURA EGITEA

Aparkalekuena positiboa iruditzen zait. Hala ere, aparkalekuak baino garrantzitsuagoa iruditzen zait bidegorri azpiegitura bat egitea. Izan ere, gaur egun herri barruan bizikletan ibiltzen garen bakoitzean gure burua arriskuan jartzen dugu. Autoek leku guztia kendu digute oinezkoak eta bizikletei. Begiratu bestela zelan dauden espaloiak eta oinezkoendako bideak! Badago zer ikasi Holanda bezalako herrialdeen-gandik.

Bidegorriak / www.goiena.net

www.goiena.net

Bizikletendako aparkalekuak bizikletan ibiltzeko ohitura areagotuko dute?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Naturak eragindako hondamendiak eragozteko neurriak hartzen dira ala ezinezkoa da hori



PEIO ZABALA | EGURALDIAN ADITUA

Aurreikusteko baliabideak inoiz baino gehiago ditugu, hortaz aurrea hartzeko ere bai. Baina geroz eta indartsuagoak dira bero handiagoa sortzen baitugu. Asian tsunamiak eragin zuenaren aldean beste erantzun bat sortu da New Orleansen eta horrek eskarmen-tu handiagoa ekarri digu.



JABIER ABALDE | EKOLOGISTA-INGURUMEN TEK.

Gurean ere eraiki izan dira etxeak erreka gainetan. Nire ustez ez dira errespetatzen naturak eskatzen dituen baldintza guztiak eta horregatik sortzen dira istripu hain larriak. Levante eta Katalunian gertatu diren azkeneko uholdeak horren adibide dira. Kontu gehiago beharko litzateke.



RAFA UGARTE | GEOLOGOA

New Orleansen gertatutakoa, esaterako, orografia asko aldarazi dutelako izan da. Fenomeno natural batzuk milaka urtean behin gertatzen dira eta teknikak aurreikuspenak egiten laguntzen du. Hala ere, han hainbat urtean gertatu ez dena gertatu da orain.



MIGUEL ANGEL MUELA | BIDEETAKO INGENIARIA

Aurreikusteko modukoa zen New Orleanseko; akats oso larria izan da. Gainera, alderdi sozialak garrantzi handia izan du eta jendearen ez jakintasan ere bai. Planifikazio egokia egiteko kutsadura ere kontuan hartu behar da, batez ere natura gure kontra agertzen ari denean.



Egunkarietako harribitxiak

KARTZELA PRIBATUAK
Segurtasun ezarekin obsesionatuta, espetxe industria negozio izugarria bilakatu da AEBn. Urtean hamar mila milioi dolar mugitzen ditu eta dagoeneko hasi da hango mugetatik kanpo hedatzen: zerbitzu espezializatua eskaintzen du bost kontinenteetan. Espainia ere sartu da zirkuitu pribatizatzaile berri horretan.

'El Semanal'
2005-09-11




ARTALDEA HANDITZEN ARI DA
Azkenaldian zabaltzen ari da autoetan animalia bat jartzeko ohitura, tokiko bereizgarri gisa. Katalunian astoa, Galizian behia, Espainian zezena, eta Euskal Herrian ardia. Tolosako lagun talde baten ekimenez zabaldu dira itsasteko ardi latxak Euskal Herri osora. Animalia hori Euskal Herriaren adierazgarri izanda, hemengo bereizgarritzat hartzea pentsatu zuen Ardilatza

kultura elkarteak. Kataluniara egindako bidaian sortu zen egitasmoa; hango autoetan astoa ikusi ondoren. Astook Euskal Herriko autoetan ere zabaltzen hasi zirela ikusi eta Euskal Herriaren bereizgarria izango litzatekeen animalia zabaltzea hobetsi zuten. Bultzatzaileen esanetan, kutsu politikorik gabeko ekimena da ardi latxarena.

'Berria'
2005-09-15



Tira, tira...



Martintxo
'Berria' | 2005-IX-11

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

ARAZOAK JARRAITU EGITEN DU

Atzo hartutako erabakiak Kupoaren gaineko auzia itxi egiten duela zalantzan jarri behar ez den arren, oraindik tentuz ibili behar da testua idazteko eta bi aldeek sinatzeko dagoelako. Dena den, horrek ere ez du oinarrian dagoen ahultasuna saihesten: interpretazioaren gaineko desadostasunaren aurrean Estatuak du azkeneko hitza.

Editoriala
2005-09-11

'Deia'

BEHARREZKOA EZ DEN AUZIA

Auzia -erro politikoduneko ezadostasunengatik sortu zen PPrekin- ez zen sortu behar, ezta luzatu behar ere, orain gobernu sozialistak eskaintako ereduak erregimen foralen eskubidea onartzen duelako. Auzia asko luzatu da -baita gobernu sozialistarekin ere- eta arrazoiak, berriz ere, argumentu politikoan aurkitu behar dira.

Editoriala
2005-09-11

'El Mundo'

PROPOSAMENA ETA FORMATUA

Presidentearen Konferentzia bere asmakizuna izan zenez, Zapaterok erabili du Osasun arloko dirua amu gisa guztiak elkartzeko eta argazkia egiteko. Argazki horrek balioko du Estatu autonomikoan dauden tentsioak ezkutatzeko, zeinak eratorri baitira Zapateroren bazkide diren alderdi erradikalen exigentziatatik.

Editoriala
2005-09-11

'El Diario Vasco'

AKORDIOAK AGERTOKIRA EKARRI

Desadostasunarekin lotutako gaiak murrizteak dakarren guztia gizartearen onerako izango da. Euskal gizarteak elkartzeko guneak nahi ditu eta bere interesen gestio ona. Euskadirentzat, Estatuaren parte den heinean, onuragarria izango da aurrekontu orokorretan egingo den ahalegina osasun arloko defizita konpontzeko.

Editoriala
2005-09-11

Zorroztailea

Akabera bako istorioa



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailburu kargua hartu zuenetik hilabete gutxi batzuk baino ez dira igaro, baina ikasturte samurrik ez du izango Tontxu Camposek. Azken urteotako ohiturari jarraituta, ikasturte beroa izango da.

'Berria' | 2005-09-10

Jota Jota Arrieta

Zorroztailearen txoko honetan nabilenetik ez dakit ba zorrozkailu itxura ere hartzen hasia ez ote naizen: ahoa zabala, barrua hutsa, eta lantzekotan... azala. Hau frogatu nahi duenak irakurtzen jarrai dezala.

Asteburuko egunkari gehienetan azaldu zaigu Tontxu Campos, Hezkuntza sailburua (argazkien arabera baita *soil burua* ere). Egunkari guztiak ematen digute ikasturte hasierako ekitaldiaren berri. Guztiak azpimarratzen dute sailburuak testuliburuari buruz esandakoak berresten dituela. Gehienek kontatzen digute ikasturte beroa izango dugula. Azken honi indarra emateko edo, bata bestearen atzean jartzen dituzte konpontzeaz dauden arazo guztiak. Guztiak? Ez, guztiak ez. Inortxok ere ez digu kontatzen nola dagoen

gaur egun egonkortasuna galdutako irakasleen kontua. Hizkuntza-eskakizuna ez lortzeagatik galdutako egonkortasuna, alegia (izan ere egonkortasuna, baita oreka ere, noiz edo noiz neuk ere galdu izan dut hainbat arrazoi direla medio). Harrigarriena aipatutako irakasleek eurek ere ez dutela tutik ere esaten.

Despistatu samarra naizen aldetik, litekeena da kanpoan izan naizen bitartean dena konpondu izana. Oso despistatua naizen aldetik posible da kanpora joan baino lehen dena konponduta egotea. Hori horrela bada, aurretik doa barkamen eskaera. Hala ez bada, nolatan hainbeste zalapartaren ondoren isiltasuna? Lortu ote dute Hezkuntza sailak eta irakasle talde horrek alde biak gustura utzi dituen akordioa? Alde biak lotsarazteko modukoa akaso?

"Ikasturte hasieran inortxok ez digu kontatzen nola dagoen gaur egun egonkortasuna galdu zuten irakasleen kontua"

"Lortu ote dute Hezkuntza Sailak eta irakasle talde horrek alde biak gustura utzi dituen akordioa? Ala biak lotsaraztekoa?"

KIROLA

- Carlos Juez Otxoak irabazi zuen Gatzagako 27. txirrindularitza proba | 15
- Mugarri Alkesak denboraldiaurreko partidu guztiak irabazi ditu | 19

75 lagunek hartu zuten parte
Gatzagako plater tiro txapelketan
atzo, domeka | 20

PREFERENTE MAILARI HASIERA

MONDRA

2-0

ZARAUZ

Mondra | Oier, Markel, Merkader, Alarcia (Barbarias 80. min.), Laspiur, Ruben (Arkaitz 53. min.), Loiti (Muxi 82. min.), Gotzon, Julen Garmendia (Heriz 56. min.), Zubikarai (Losada 88. min.) eta Lopez.

Zarauz | Ibai, Igor (Azpi 45. min.), Errasti, Olano, Eneko (Jabi 81. min.), Yato (Inaxio 75. min.), Txema, Beñat, Kuyami, Mitzol (Angel 58. min.) eta Josu (Joseba 45. min.).

Golak: 1-0 Zubikarai (7. minutuan), 2-0 Zubikarai (20. minutuan).

Epaila | Morales jauna. Lehen zatian nahiko ondo ibili zen, baina bigarrean ez zuen zarauzaren joko gogor eta zikina gelditzen jakin.

Bestelakoak | Ikusle dezente gerturatu ziren Atxabalpen jokaturako denboraldiko lehen partidura.

Bikain

ZUBIKARAI

Antzuolarrak Mondraren bi golak sartu zituen. Horrez gain, ezker hegaletik min handia egin zuen. Amaierara indarrez justu heldu arren, oso partidu bikaina berea.

Kaskar

JOKO ZIKINA

Mondraren defentsarekin ezin zutela ikusita eta gol aukerak ezin zituztela sortu, zarauztarrek joko zikina egitea erabaki zuten, eta sarrera gogor xamarrak egiteari ekin zioten.

Esandakoak

"Defentsako lana oso ona izan da. Hasierako 25 minutuak bikainak, eta bigarren zatian lana erruz egin dugu".

IGOR GORDOBIL |
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Lehen zatian nagusi izan gara, eta bigarren zatian lan asko egin behar izan dugu, kontrario gogorra zen eta gaurkoa".

JULEN HERIZ |
MONDRAKO JOKALARIA



AINZANE AGIRRE

Oier Mondrako atezainak ez zuen lan gehiegirik eduki zapatuan, eta eduki zuen apurrean bikain erantzun zuen.

MONDRA | IGOR GORDOBILEN MUTILEK BIKAIN EKIN DIOTE DENBORALDIARI

Kuyamik ezin izan zuen Mondrako defentsarekin

Defentsako lan bikaina eta kontraerasoan min handia egin; horiexek izan ziren Mondraren garaipenaren gakoak

Jokin Etxebarria

Ezin hobeto ekin dio Mondrak 2005-06 denboraldiari. Bi partidu jokatu eta biak irabazi, bi gole-tako abantailarekin bietan ere. Ea horrenbeste bik, liga amaieran, gutxienez bigarren bukatzeko balio izaten dioten.

Aste honetako aurkaria ez zen batere erraza. Zarautzek talde indartsua egin du aurten, hirugarren mailara igotzeko asmoz. Fitxaketa garrantzitsuak egin ditu, Realean ibilitako Kuyami,

besteak beste. Hala ere, Mondraren aurrean ezer gutxi erakutsi zuten. Izan ere, Mondraren partidua bikaina izan zen.

LEHEN ZATIAN NAGUSI

Hasiera bikaina izan zuen partidua zerrajeroendako. Zazpigarren minutuan, Josu Zubikarai zelai erdian baloi bat hartu, defentsa guztiak abiaduraz atzean utzi eta atezaina driblatu eta gero baloia sare barrura eramane zuen. Ez zen hor gelditu. 20. minutuan ere, defentsari bizka-

rra hartu eta Rubenek emandako pase bikaina ezin hobeto aprobetxatu zuen arratsaldeko bigarrean sartuta. Bitartean, zarauztarren aurrelari Kuyamik baloia ukitzeke jarraitzen zuen, Mon-

draren defentsa bikain ibili zen eta partidu guztian zehar.

LANA BIGARREAN

Bigarren zatia oso gogorra izan zen. Etxekoek gogotik egin behar izan zuten lan. Hala ere, Luis Fernando Dadiak entrenatzen duen taldeak ezer gutxi erakutsi zuen aurrean. Aukera garbi bakarria izan zuen Kuyamik, eta Oierrek, Mondrako atezainak, ederki erantzun zion.

Jokoaren bitartez ezin eta borroka bila hasi ziren kostakoak, sarrera gogorak eginez. Hala ere, etxekoek ez zuten burua galdu. Lanean jarraitu, eta hiru puntuak lortu zituzten. Partiduko txarrena Alarcia izandako lesioa izan zen. Lepauztaiaren min hartu zuen, eta medikuarengana eramane behar izan zuten.

Mondraren defentsa bikain ibili zen partidu guztian zehar

Jokoaren bitartez ezin eta borroka bila hasi ziren kostakoak, sarrera gogorak eginez

PREFERENTE MAILA



AINZANE AGIRRE

UDA taldeak garaipen batekin eman dio hasiera denboraldiari bere zaleen aurrean.

UDAK denboraldiko lehen garaipena eskuratu du

UDA
2-1
BETI GAZTE

UDA | Torres, Oxel, Unai, Jon, Hegoi (Iturbe 77. min.), Imanol, Haritz (Iñaki 65. min.), Igor (Juan 89. min.), Erik eta Iban Espinosa.

Beti Gazte | Fernando, Iñigo, Imanol, Xabier, Iñaki (Javier 78. min.), Iker, Jon, Beñat, Jon Andoni, Andoni eta Iban (Joseba 66. min.).

Golak: 1-0 Igor Arriaga. 2-2 Igor Arriaga. 2-1 Jon Andoni Larralde.

Epaillea: Medina jauna. Akats batzuk izan zituen.

Arantzazu Ezkibel

Garaipena eskuratzea lortu zuen UDAK atzo, domeka, etxeko zaleen aurrean jokaturako lehenengo partiduan; estreinaldi ona, beraz, aretxabaletarrena.

Lehenengo zatian UDAK Beti Gazte bano joko hobea erakutsi zuen. Baloia kontrolatzea lortu zuen eta joko polita erakutsi zuen. Partiduko lehen gola 25. minutuan heldu zen. Igor Arriagak baloia sareetan sartzea lortu zuen.

Hurrengo jokaldian partiduko jokaldi polemikoa heldu zen. Beti Gazteren eraso batean, epaillea UDako atezainak egindako falta adierazi zuen. Torresi txartel horia atera zion eta penaltia

adierazi zuen. Baina atezainak penaltia geratzea lortu zuen. Beraz, Beti Gaztekoek ez zuten berdintzea lortu.

GOL ERABAKIGARRIA

UDAKoek aurrera egin zuten eta 35. minutuan bigarren gola sartu zuen Igorrek. Hala, partidua erabakita laga zuen UDako aurrelariak.

Bigarren zatian gauzak lehenengoan baino lasaiago joan ziren. Bi taldeak nahiko berdinduta egon ziren. 61. minutuan Jon Andoni Larralde 2-1eko egitea lortu zuen.

Azken minutuetan Erikok hirugarren gola sartzeko aukera polita izan zuen, baina baloia ez zen sareetan sartu.

Partidu txarra jokatu zuen Aloñak Pasaian

PASAI

1-0

ALOÑA MENDI

A.G.

Egubakoitzean jokatu zuten denboraldiko bigarren partidua Oruetaren mutilek. Hasieratik erritmo gabeko partidua izan zen bi taldeen aldetik, eta gol auke-

rak ere ez ziren egon. Bigarren zatian ere berdinduta ziren jokalariek. Partiduaren nondik-norakoak ikusita, bi taldeen arteko berdinketa zen emaitzarik justuena. Baina 64. minutuan, jokaldi estrategiko batean Vidalek gola sartu zuen pasaitarrentzat. Minutu batzuk gelditzen ziren erreakzionatzeko, baina oñatiarrek ezin izan zuten ezer egin.

Datorren astean Touringek bisita izango dute Aloñakoek etxean, eta ea joko hobea erakutsiz denboraldiko bigarren garaipena lortzen duten.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Orioko-Real Union	1-2
Pasaia-Aloña Mendi	1-0
Touring-Idiazabal	1-1
UDA-Beti Gazte	2-1
Zestoa-Mutriku	2-0
Allerru-Ordizia	0-1
Mondra-Zarautz	2-0
Berio-Hernani	4-0
Irun 1902-Trintxerpe	1-2
Anaitasuna-Hondarribia	1-2

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.Mondra	6	2	2	0	0	5	1
2.Real Union	6	2	2	0	0	4	1
3.Ordizia	6	2	2	0	0	3	0
4.Berio	4	2	1	0	1	5	1
5.Trintxerpe	4	2	1	0	1	3	2
6.Touring	4	2	1	0	1	3	2
7.Pasaia	4	2	1	0	1	3	2
8.Hondarribia	4	2	1	0	1	3	2
9.Aloña Mendi	3	2	1	1	0	6	5
10.Aetxabaleta	3	2	1	1	0	3	3
11.Zestoa	3	2	1	1	0	2	2
12.Zarautz	3	2	1	1	0	2	2
13.Mutriku	3	2	1	1	0	2	3
14.Idiazabal	2	2	0	0	2	3	3
15.Irun 1902	1	2	0	1	1	2	3
16.Beti Gazte	0	2	0	2	0	2	4
17.Orioko	0	2	0	2	0	5	8
18.Anaitasuna	0	2	0	2	0	1	4
19.Allerru	0	2	0	2	0	0	3
20.Hernani	0	2	0	2	0	0	7

HURRENGOAK

Orioko-Pasaia
Aloña Mendi-Touring
Idiazabal-UDA
Beti Gazte-Zestoa
Mutriku-Allerru
Ordizia-Mondra
Zarautz-Berio
Hernani-Irun 1902
Trintxerpe-Anaitasuna
Real Union-Hondarribia

Emakumezkoen Liga

Azken minutuan sartu zuen bigarrena Bergarak

ALOÑA MENDI

1-2

BERGARA

Jokin Etxebarria

Denboraldia hasteko ez da makala derby bat edukitzea. Baina horrela ekin behar izan zioten atzo Ibarran Oñati eta Bergarako neskek. Partidu polita izan zen, nahasia baina borrokatua,

eta azken arte emozioz betetakoa. Izan ere, partiduko hiru golak azken hamar minutuetan etorri ziren.

BERGARARRAK NAGUSI

Lehenengo zatian joko oso nahasia ikusi zen, batez ere lehen 25 minutuetan. Hala ere, joko horretatik abantaila gehien mahonekoek atera zuten. Aukera pila bat sortu zituzten, kórner morderoa atera, eta baloi bat langara ere bota zuten, baina ezin golik sartu. Bitartean etxekoek aukera bakarra sortzeko gai izan ziren, eta hau jokaldi nahasi batean

heldu zen. Hala ere, gutxika-gutxika gorantz etorri eta partidua parekatzea lortu zuten.

Bigarren zatia, guztiz kontrakoa izan zen. Etxekoak irten ziren erasora, eta aukera polit pare bat sortu zuten. Baina, kontraerasoan Bergarakoek min egiteko aukera izan zuten, eta honek gora ekarri zituen kanpokoak.

Hamar minutu faltan bergararrak markagailuan aurreratu ziren. Bost minutu beranduago etxekoek berdinketa heldu zen. Baina ez zuen pozak gehiegi iraun Aloñan, azken minutuan mahonekoek bigarrena egin zuten eta.



AINZANE AGIRRE

Joko nahasia izan zen nagusi, baina partidu borrokatua izan zen.

JOSE LUIS AZKARATE | MONDRAKO PRESIDENTEA

"Realean batuta eramango duen jokalaria bat falta da"

Jokin Etxebarria

Novo izango al da Realaren gaitzen erremedioa, ala fitxaketa gehiago egin beharko dira abenduan?

Nire ustez fitxaketa gehiago egin beharko ditu. Novo oraindik ere heldu berria da eta berde xamar dago. Eta jokalaria ona den arren, nik uste, Realak fitxaketa pare bat gutxienez beharko dituela, zelai erdian ez dago eta jokoa antolatuko duen jokalaririk. Batuta eramango duen baten bat falta da.

Osasunako Romeok jarraituko du Pitxitxi hurrengo jardunaldietan?

Oso zaila da, eta ez dut uste jarraituko duenik. Real Madrilek eta Bartzelonak dauzkan jokalariekin hori lortzea ia ezinezkoa da. Lehen partiduan bi gol sartu zituen eta horregatik dago Pitxitxi, baina ez dut uste Osasunako jokalaria postu horretan jarraituko duenik.

Athleticek Arrasatera etorri beharko al du atezain bila?

Agian bai. Atezain guztiak min hartuta ditu eta guk lau atezain ditugu momentu honetan. Beraz, gu atezainen bat uzteko prest egongo ginateke; hori bai, guri ere ekonomikoki laguntzen baldin badigute, noski.

Zer iruditzen zaizu Pitermanek Alaveseko harrobia Athleticari saldu nahi izana?

Nik hor barruan ez dakit zer gertatu den. Piterman bera nahiko pertsona xeblea da eta Athleticeko presidentea ere ez dabil urrutiti. Zubiaurreren kasuan nola portatu diren ikusi besterik ez dago.



JOKIN ETXEBARRIA

Pitermanek bota duen beste gauza bat da, urte bukaerarako taldearen ereserkia euskaraz atera nahi duela. Zer iruditzen zaizu?

Niri hori ondo iruditzen zait. Pitermanek gauza onak ere baditu, eta beste batzuk ere horrela-

koetatik ikasi beharko lukete. Araban euskaraz ere egiten da eta.

Robinho izango da ligako krak berria?

Cadizen kontrako partiduan ikusi nuen jokatzeko eta oso jokalaria iruditu zitzaidan. Hala ere, gaztea da eta defentsen zartada bat edo beste jasan beharko ditu. Ez dakit zer gertatuko den Alfaro eta horrelako beste defentsen kontra jokatzeko duenean. Ez dakit ligako krak berria izango den, baina oso jokalaria ona dela iruditzen zait.

"Robinho gaztea da eta defentsen zartadak jasan beharko ditu"

Harmailatik



Jokin Etxebarria

Bi minutu gehiagorekin Alavesak baietz berdindu

A.G.

• AGIRRE

Pertsona kurioa da Osasunako entrenatzaile Mexikarra. Ruiz de Loperara joan zen, argi eta garbi, berdinketa baten bila eta taldeak galdu ostean bere jokalariei gehiago ezin zitzaizela eskatu adierazi zuen; pozik zegoela egindako lanarekin. Eskerrak galdu zuten, bestela nolako oihuak aterako zituen. Sevillan jokatzeko zebiltzala jokalariei botatakoen antzerakoak akaso?

• PITERMAN

Dimitrik badu lana aste honetan, Chuchi Cosek ez dut uste-eta gehiegi agintzen duenik babazoroen aulkixoa. Ez zen Donostiara gerturatu. Eta nire galdera da: harrobia Athleticari saldu baino, Realari saldu nahi izan balio, agertuko ote zen atzo Anoetatik?

• BI


Aspaldiko partez Realak bi gol egin ditu aste honetan. Biak Barkero gainera. Horrez gain, birritan jo zuten txuri-urdinek zutoinean. Baina, azken minutuetan Realak De Lucasen golaz sufritu egin zuen eta epaileak partidua bi minutu gehiago luzatu izan balu, binakako berdinketa batez hitz egiten ibiliko ginateke.

• CHAMPIONS

Liga hasi berri dago eta Athleticek partidua txarra egin arren, Txapeldunen Ligan jokatzeko postuan mantentzen da. Hori bai, lidergoa galdu du dagoeneko.


• MAMUAK

Bernabeun mamuak agertu ziren zapatuan golak sartzeko. Ez dut uste Ramirez Domingez epaileak denboraldian zehar gehiago epaituko duenik Chamartinen.



Barkero

Aretxabaletarrak bi gol sartu zituen Alavesaren aurka. Ez zuen bere ohiko postuan jokatu, defentsa bezala aritu zen eta, hala ere bere hegaletik Alavesak ez zuen zirrikiturik aurkitu.



Chuchi Cos

Alavesak benetan itxura eskasa eman zuen Anoetan, 80 minututan zehar. Gainera, zaila da ulertzen 2-0 galtzen zoazenean nola kendu daitekeen aurrelari bat defentsa bat jartzeko.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Vila-real-Sevilla	1-1
Betis-Osasuna	1-0
Zaragoza-Valentzia	2-2
Deportivo-At. Madril	1-0
Bartzelona-Mallorca	2-0
Real-Alaves	2-1
Getafe-Athletic	1-1
Malaga-Espanyol	1-2
Real Madril-Celta	2-3
Racing-Cadiz	0-1

HURRENGOAK

Athletic-Malaga
At. Madril-Bartzelona
Betis-Zaragoza
Celta-Racing
Espanyol-Real Madril
Valentzia-Deportivo
Alaves-Getafe
Mallorca-Real
Osasuna-Sevilla
Cadiz-Vila-Real

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Celta	6	2	2	0	0	3	2
2. Deportivo	6	2	2	0	0	2	0
3. Athletic	4	2	1	0	1	4	1
4. Getafe	4	2	1	0	1	3	1
5. Bartzelona	4	2	1	0	1	2	0
6. Valentzia	4	2	1	0	1	3	2
7. Sevilla	4	1	1	0	1	2	1
8. Real Madril	3	2	1	1	0	4	4
9. Cadiz	3	2	1	1	0	2	2
10. Osasuna	3	2	1	1	0	2	2
11. Betis	3	2	1	1	0	1	1
12. Espanyol	3	2	1	1	0	2	3
13. Real	3	2	1	1	0	2	4
14. Zaragoza	2	2	0	0	2	2	2
15. Vila-real	1	2	0	1	1	2	3
16. Alaves	1	2	0	1	1	1	2
17. At. Madril	1	2	0	1	1	0	1
18. Racing	0	2	0	2	0	0	2
19. Malaga	0	2	0	2	0	1	4
20. Mallorca	0	2	0	2	0	0	3




Kiniela

KINIELA

1. Vila-real-Sevilla	X
2. Betis-Osasuna	1
3. Zaragoza-Valentzia	X
4. Bartzelona-Mallorca	1
5. Real-Alaves	1
6. Getafe-Athletic	X
7. Malaga-Espanyol	2
8. Real Madril-Celta	2
9. Racing-Cadiz	2
10. Levante-Elx	1
11. Hercules-Almeria	X
12. Tenerife-Malaga	1
13. Sporting-Recreativo	X
14. Valladolid-Gimnastic	2
15. Deportivo-Athletic	1

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



TXIRRINDULARITZA | GATZAGAKO 27. DORLETAKO AMA PROBA

Bidelaneko Carlos Juez Otxoak irabazi du Dorletako Ama proba

Ziklistek Gatzagako mendatea hiru bider igo behar izan zuten.

Proba gogorra da eta 10ek baino ez zuten bukatu

Arantzazu Ezkibel

Egubakoitz goizean Dorletako Ama txirrindulari proba jokatu zen Gatzagan. Aurten 24 txirrindularik bakarrik hartu dute parte proban, egutegi arazo batenatik. Bidelan eta Caja Rural izan ziren txirrindulari gehien eraman zituzten taldeak. Beste guztiak bakarrik joan ziren, hau da, talderik gabe.

Duen gogortasunagatik eza-guna da txirrindularien artean Gatzagako proba hau. Izan ere, hiru bider igo behar izaten da Gatzagako mendatea.

Goizeko 9:30ean atera zen tropela Gatzagatik. Hemendik Bergarara jaitsi eta MAYCen bira eman ostean Gatzagarantz abiatu ziren berriro. Txirrindulariak tropelean heldu ziren lehenengo bueltan. Gatzagan sari berezia jarri zuten eta bertatik lehen pasatzen Caja Rural taldeko Carlos Delgado txirrindularia izan zen. Berarentzat izan ziren jokoa zeuden 20 euroak. Lehenengo bira horretan lau txirrindularik utzi zuten proba.

TROPELA BANATUTA

Bigarren bueltarako tropela apurtuta zegoen. Hamalau txirrindulari bakarrik pasatu ziren Gatzagako sari berezitik. Oraingoan azkarrena Carlos Juez Otxoa Bidelaneko txirrindularia izan zen. Beraz, berarentzat izan ziren 30 euroak.

Hirugarren bueltarako oso txirrindulari gutxi geratu ziren, hamar bakarrik. Tropela bi talde txikitik banatu zen; lau eta sei lagunekoa. Lau txirrindulariko talde txikia zen buruan. Hala



ARANTZAZU EZKIBEL

Lauko talde txikia ihes eginda ibili ostean, helmugaratzen azkarrena Carlos Juez izan zen

ere, Gatzagara taldea bananduta iritsi zen, Bidelaneko Carlos Juezek eraso jo zuen eta. Caja Ruralekoek ez zuten erantzun eta azkenean denetan azkarrena

Carlos Juez Otxoa izan zen. 114 kilometroko lasterketa luzea egin ostean Bidelaneko txirrindularia izan zen lehen helmugara iristen.

Esan bezala, Gatzagako proba hau gogorra da eta horri denboraldi amaieran gaudela gehitzen badiogu, are eta gogorragoa. Txirrindularien hankak ez

daude denboraldi hasieran bezala eta hori nabaritu egiten da. Horren adibide garbia da 24 parte-hartzaileetatik hamarrek bakarrik bukatu izana proba.

Mendiko saria Carlos Delgado Caja Ruralekoak eraman zuen. Baina ez zen Caja Rural irabazi zuen sari bakarra izan. Taldekako sailkapenean ere Caja Rural izan zen indartsuena. Txirrindulari gehien eraman zuen taldea izan zen, beraz, erraz lortu zuten saria.

Hasiera 24 txirrindularik hartu arren, 10 bakarrik helmugaratu ziren

Caja Rural taldeak eskuratu zuen jokoa zegoen taldekako saria

Mendiko sailkapenean Carlos Delgado izan zen nagusi

• HONELA IKUSI ZUTEN PROBA PARTE-HARTZAILEEK



CARLOS JUEZ OTXOA |
TXAPELDUNA

“Galiziako itzulitik nator eta ez nekien nola erantzungo nuen. Lasterketa oso gogorra izan da. Txirrindulari gutxi hartu du parte eta hasieratik egon dira ihesaldi ahaleginak. Bukaeran, lau talde txikia osatzea lortu dugu. Caja Ruraleko biek ez dute erasotu. Beraz, garaipena eskuratu dut”.



CARLOS DELGADO |
BIGARRENA HELMUGARATZEN

“Oso gustura geratu naiz egin dudana lanarekin. Lasterketa oso gogorra izan da; izan ere hiru aldiz igo behar izan dugu Gatzaga. Jendea tiraka hasi da hasieratik, baina hala ere aurrealdean egotea lortu dut. Azkenean, taldeko bi geratu gara lau taldean, baina ez gara ados jarri eta bigarren heldu naiz”.



JAVIER CABANES |
HIRUGARRENA HELMUGARATZEN

“Baque taldetik bakarrik etorri naiz, beraz lan gogorra egitea tokatu zait.

Lehenengo buelta nahiko ondo joan da, denok tropelean ibili gara. Baina bigarren itzulitik aurrera jendea tiratzen hasi da eta hor lasterketa apurtu egin da. Azkenean hirugarren tokian sartzea lortu dut”.

Sailkapena

1. Carlos Juez	(2:52:07)
2. Carlos Delgado	(2:52:21)
3. Javier Cabanes	(2:52:36)
4. Daniel Sesma	(2:53:07)
5. Patxi Mundiñano	(2:55:25)
6. Mikel Nieve	(2:55:25)
7. Juan P. Uriarte	(2:55:29)
8. Martin Iraizos	(2:55:32)
9. Jonathan Fernandez	(2:55:54)
10. Ramon Garcia	(2:55:59)



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



LANDA ILUNABARREAN. Abuztuaren 18an egin zuen argazkia Jorgek. Landa-
ra joan zen familiarekin, eta afaldu ostean ikuskizun eder hori eskaini zien ilu-
nabarrak /Argazkia: Jorge Murgiondo /Bergara



ITSAS IZARRAK. Karibe itsasoan, Isla Saonatik gertu, bada
igerileku natural bat. Han itsas izarrak bizi dira. Bertako
bizilagunek goxo-goxo jolasten dute haiekin, uretatik ate-
ra gabe, hil egingo lirateke eta. /Argazkia: Abel Kirze /Arrasate



ZEIN ONDO PASATU DUGUN. Haritzek eta Unaik landetan eman dute uda, Mes-
sangesen. Nahi beste jolas egiteko aukera izan dute, aspertzeko astirik gabe. Ondo
baino hobeto pasatu dutela, seguru. /Argazkia: AitziberAltube /Oñati



ISPILUA. Neska-lagunaren betaurrekoak erabili zituzten Jose Angelek
bere buruari argazkia egiteko. Argazkia Donostian egin zuten, irudiaren
atzeko aldean ikus daitekeenez. /Argazkia: J.A. San Miguel /Aretxabaleta

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).

- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD

- batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko *Asteleheneko Goienkaria*-n.

- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean erabili nahi badira ere, betiere egilea aipatuta.

GAUEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak



GOLDEN GATE. Bi estatubatuarrri sorbaldatik heldu eta San Frantzisko hiriko zubi ezaguna atzean zuela egin zuen argazkia Anderrek. /Argazkia: Ander Arenaza/Bergara



KANADA ALA BILBO? Kanadara joan, Ottawa hirira, eta hegaldiz nahastu eta Bilbora eramán ote zuten zalantza sortu zitzaion Mikeli. Izan ere, Bilbon dagoen armiarmaren berdina dago han ere. /Argazkia: Mikel Barrenetxea /Aretxabaleta



KUBATARRAK ETA MUSIKA. Habanako katedraleko plazan egin zuen Atxak argazki hau. Kubatarren musikarako zaletasuna eta abilezia ezagunak dira. Halako egoera asko ikusi zituztela diosku. /Argazkia: Aitor Atxa /Antzuola



KLEOPATRA BERPIZTU EGIN DA. Halaxe dirudi, baina ez, Estitxu da. Terra Mitikan sarkofagoa ikusi eta sartu barik ezin geratu. Dena den, sartu ere berehala irten zela aitortu du. /Argazkia: Estitxu Lobato/Bergara

Sariak

1. saria: Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kifú argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



- 2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- SARI BEREZIA:** parte-hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI / bidaiak
mereri duzu

Kifú
argazkitalariak

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

Xakea

• ARRASATE HIRIA V. XAKE TXAPELKETA

Maila ona izan zen Xake txapelketako lehen jardunaldian

Guztira 32 parte-hartzaile izan ziren, eta maila handia erakutsi zuten guztiek partida oso luzeak jokatu eta gero

Jasone Zabala

Egubakoitzean hasi zen Arrasaten, San Andres Xake taldeak antolatutako Arrasate Hiria V. Xake Txapelketa. Guztira 32 parte-hartzaile izan ziren, hainbat lekutatik etorriak: Debagoienetik arrasatearrak izan ziren asko; Gipuzkoatik ere hainbat etorri ziren, tartean Iñigo Argandoña Gipuzkoako txapelduna; bizkaitarrak ere bertan izan ziren; baita arabarrak, nafarrak eta aragoarrak ere.

USTEKABE ARRASATEARRA

16 partida jokatu ziren lehen jardunaldian. Ez zen kanporaturik egon, eta lortutako puntuen arabera osatuko dituzte hurrengo jardunaldirako bikoteak. 15 partidatan faboritoak izan ziren irabazleak, nahiz eta lan handia egin behar izan zuten. Ustekabe bakarra Javier Axpe arrasatearra eman zuen, sailkapen orokorreko laugarren tokian dagoen Cesar Rodriguez Balzategui getxotarrarekin berdinketa lortu ondoren. Aipatu, Debagoieneko parte-hartzaile gazteenek ere lan bikaina egin zutela. Hauen artean aipatzekoak dira lau arrasatear: Juan Manuel Ruiz, Asier



JASONE ZABALA

Kontzentrazio handia behar izan zuten parte-hartzaileek lehen jardunaldian.

Kontu bitxi bezala aipatu, Jacson Navarro brasildarra ere badabilela txapelketan

Txapelketa urriaren 14 arte izango da eta 6 jardunaldi izango dira guztira

Ettagibel, Asier Fernandez, eta Maider Ettagibel, parte hartzen duen neska bakarra. Poliki-poliki, jardunaldiak aurrera doazen neurrian, maila gero eta altuagoa egongo da, eta partidak gogorragoak eta luzeagoak izango dira. Datorren astean, beraz, bigarren jardunaldia.

Ettagibel, Asier Fernandez, eta Maider Ettagibel, parte hartzen duen neska bakarra.

Poliki-poliki, jardunaldiak aurrera doazen neurrian, maila gero eta altuagoa egongo da, eta partidak gogorragoak eta luzeagoak izango dira. Datorren astean, beraz, bigarren jardunaldia.

Pilota



AINTZANE AGIRRE

PARTIDU BORROKATUAK URIBARRI-ERGUINEN

Zapatuan, Uribarri-Erguin auzoko jaien barruan 3 partidu jokatu zituzten auzoko pilotalekuan. Kimu mailan, Aitor eta Hasier Larreak 18 eta 16 irabazi zieten Arregi eta Prietori. Beste bi partiduak Iturripeko frontoian jokatu ziren euria hasi zelako. Kade-te mailan, Uribarren eta Zubizarretak 18 eta 16 irabazi zieten Arana eta Ortiz de Mendibili; eta infantil mailan, Akizu eta Epeldek 18 eta 16 irabazi zieten, Agirregabiria eta Bolinagari.

Minguez eta Fuertesek Capellan II.a eta Jaioren aurka irabazi zuten

Partidua ez zen azken tantora arte erabaki, eta lau pilotariek ikuskizun bikaina eskaini zuten Gatzagan

Jasone Zabala

Gatzagako jaien barruan antolatutako pilota partiduak izan ziren atzo. Minguez eta Fuertesek gorritz, urdinez jardun zuten Capellan II.a eta Jaioren aurka irabazi zuten 22 eta 21eko emaitzaz.

Partidua polita izan zen hasieratik. Gorriak partidu guz-

tian zehar aurretik joan ziren. Lehen tantoetan 6 tantoko alde ere atera zieten urdinei (12-6), eta alde murriztu ezinik zebiltzan Capellan eta Jaio. Minguezek ederki amaitu zituen tantoak aurreko aldean eta ezinean ibili zen Capellan, nahiz eta pilota guztietara heltzen saiatu zen. Hala eta guztiz ere, urdinek 18na berdindu zuten, baita 21na ere, eta bertara hurbildutako 300 bat pilotazale gozatzen ari ziren ikuskizunaz. Azkenean, gutxigatik izan bazen ere, Minguez eta Fuertesentzat izan zen garaipena.

TXIKIAK ERE ARITU ZIREN

Partidu nagusiaren aurretik Otxandioko pilota eskolako 15-16 urteko gaztetxoak ere bertan aritu ziren beraien abileziak erakusten.



AINTZANE AGIRRE

Ikuskizun polita eskaini zuten.

Saskibaloia

• LEHEN MAILA

Denboraldia ondo hastea du helburu Mugarri Alkesak

Denboraldiaurrean bikain ibili dira Zurutuzaren mutilak. Zarauzko txapelketa irabazi eta gero, eguenean At. San Sebastiani irabazi zioten

Jokin Etxebarria

Arrasateko saskibaloit talde nagusia denboraldiaurreko prestaketetan buru-belarri dabil, datoren irailaren 17an hasiko den denboraldi berria ondo hasteko.

Dagoeneko hiru aste dira entrenamenduekin hasi zirela, eta partidu ugari jokatu dituzte lehiaketako erritmoa hartzeko asmoz. Zarauzko txapelketan garaile irten ziren. Finalerdia Goierri taldearen aurka irabazi zuten 77-57, eta finala berriz etxekoen aurka jokatu 66-60 irabazi zuten.

Aste honetan ere beste partidu bat jokatu dute. Eguenean izan zen, Atletico San Sebastianen kontra jokatu zuten Donostian eta 70-78 irabazi zuten.

Kontuan hartzeak dira emaitza hauek. Izan ere, talde honen tradizioak dio denboraldia oso gaizki hasita bigarren

itzulian fin ibiltzen direla. Baina denboraldiaurrean ondo ibiltzen badira, litekeena da denboraldia ere ondo hastea.

Hori da gainera taldeak duen helburuetako bat. Horrela esan zigun behintzat Jagoba Gamarra

Partidu ugari jokatu dituzte lehiaketako erritmoa hartzeko asmoz

Hiru jokalarik taldea utzi badute ere, beheko taldetik igotakoek beteko dute taldea



ARTXIBOA

Alarciak jarraituko du Mugarri Alkesako joko-antolatzaile moduan.

kapitainak: "Lehen hiru partiduak irabaztea nahi dugu, modu positibo batean hastea gutxienez. Aurreko urteetan oso hasiera txarrak egin ditugu, eta hori konpontzea zaila izaten da. Bes-

tela, helburu moduan, igoera fasean sailkatzea daukagu."

ALDAKETA GUTXI

Taldean ez da aldaketa gehiegirik egon. Gorka Zurutuzak jarrai-

tzen du entrenatzaile, eta hiru jokalarik taldea utzi badute ere -Ugutx, Jokin eta Ancin-ek- beheko taldetik igotako Jagoba, Aitor, Beñat eta Antxonekin beteko dute taldea.

Ehiza

Roman Ceciagak irabazi zuen Zanbranan izan zen ehiza txapelketa

A.G.

Egubakoitzean jokatu zuten Zanbranan (Araba), Bergarako Ehiza Txapelketa Ariznoa-Oilagorrra ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta.

37 parte-hartzaile izan ziren bertan, denak bergararrak. Ehiza proba goizeko 9etatik eguerdiko ordu bata arte izan zen. Guztira 60 eper eta 51 faisai askatu zituzten ehizatzeke, eta emandako 4 ordu horietan ahalik eta gehien ehizatu behar zuten ehiztariak. Harrapatutako eper bakoitzeko 101 puntu banatzen ziren, faisai bakoitzeko 100 puntu, eta Zanbranan zegoen galeperren bat harrapatuz gero 25 puntu. Behin

saioa amaituta irabazlea Roman Ceciaga izan zen: 3 faisai, 2 eper eta galeper bat harrapatu zituen; bigarren, Ruben Laskurain izan zen, honek, 2 eper eta 3 faisai harrapatu zituen; hirugarren postuan, Diego Valor sailkatu zen 3 eper, faisai bat eta 2 galeperrekin eta laugarren tokia Unai Olabarrarentzat izan zen, 4 eper eta galeper batekin. Beteranoetan, Jose Gabilondo izan zen irabazlea eper batekin.

Lehenengo lau sailkatuek eta beteteranoetako irabazleak irailaren 25ean berriz ere Zanbranan izango den Debagoieneko txapelketan parte hartuko dute, eta ondoren Gipuzkoako txapelketa izango da.



LUIS ETXABARRI

37 parte-hartzaileek, beraien lana amaitu ondoren, talde argazkia atera zuten.

Plater tiroa

Alfredo Castrillok irabazi du Gatzagako plater tiro txapelketa

Antolatzaileek parte hartze handiagoa espero zuten arren, jende ugari bildu zen Benta Fria plater tiro zelaian

Arantzazu Ezkibel

Alfredo Castrillo legazpiarrak irabazi zuen Kilometroen alde Leintz Gatzagako Benta Fria zelaian jokatu zen plater-tiro txapelketa. Gatzagako jaiak aprobetxatuz, Kilometroen aldeko ekitaldia egin zuten. Guztira 75 parte hartzaile izan ziren. Honelako txapelketa baterako jende asko den arren, antolatzaileek jende gehiagok parte hartuko zuela uste zuten.

Lehenengo txanda jokatu ostean hiru par tehartzaile berdinduta geratu ziren. Lehenengo txanda horretan 15 plater bota zituzten eta lehenengo hirurek plater guztiak jotzea lortu zuten. Hurrengo zazpi sailkatuek 14 plater jo zituzten. Bigarren txanda bat jokatu zuten berdinketa puskatzeko. Bigarren tokian Juan Bautista Manzano eibartarra geratu zen eta hirugarrenean Jose Luis Arregi antzuolarra.

Garaileak urdaiazpikoa eta 50 euro eramán zituen. Bigarren sailkatuak 40 euro eta urdaiazpikoa eta hirugarrenak 30 euro eta urdaiazpikoa. Lehenengo 20 sailkatuei urdaiazpiko bana eman zieten eta 20. postutik 25era sailkatu zirenei Kilometroetako krianza ardoa.

ANTOLATZAILEEK JENDE GEHIAGO ESPERO ZUTEN

Antolatzaileek adierazi digutez, jende gehiagok parte hartuko zuela uste zuten. Eguraldia ez zen ona izan eta agian horregatik espero baino jende gutxiago animatu zen plater tiroan jardutera. Hala eta guztiz ere, pozik daude txapelketak izan duen erantzunarekin. Parte hartu zuten gain, jende ugari hurbildu zen Leintz Gatzagako Benta Fria plater-tiro zelaira. Horregatik guz-

Sailkapena

	PUNTUAK
1. Alfredo Castrillo (Legazpi)	15
2. Juan Bautista Manzano (Eibar)	15
3. Jose Luis Arregi (Antzuola)	15
4. Jose Ramon Arginzoni (Elorrio)	14
5. Juan Luis Urreztarazu (Galdakao)	14
6. Juan Luis Nafarrete (Aramaixo)	14
7. Aitor Abarrategi (Aramaixo)	14



75 parte hartzaile elkartu ziren Gatzagan jokaturako txapelketan.

AINTZANE AGIRRE

tiagatik, antolatzaileek txapelketara hurbildu ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkiote; baita parte hartzaileei ere eskainitako laguntzarengatik.

KILOMETROEN ALDE
Kilometroen alde antolatutako txapelketa zela kontuan izanik, antolatzaileak pozik daude egin duten lanarekin. Oso gustura

egin dute lana txapelketa hau antolatzen eta arto daude Leintz bailaran urrian ospatuko den festa handirako diru laguntza bat lortu izanaz.

Txirrindularitza

Gurutz Larrea Euskadiko selekzioarekin egon da Suitzako sari nagusian

Arantzazu Ezkibel

Gurutz Larrea txirrindulari antzuolarra Suitzan izan da Euskadiko junior mailako selekzioarekin. Suitzan, Rübliand-eko Sari Nagusia jokatu du txirrindulari gazteak egubakoitzetik domekara.

Sariak hiru etapa izan ditu eta Gurutz 82. postuan sailkatu da eta oso gustura dago egindako lanarekin. Lehenengo etapa 130 kilometrokoa izan da. Bigarren egunean goiz eta arratsaldean izan dituzte probak. Goizean 80 kilometroko etapa eta arratsaldean 73koa. Azkeneko etapa, berriz, 111 kilometrokoa izan da.

Gurutzek esan digunez, maila altua erakutsi dute itzulian parte hartu duten txirrindulariek. Euskadiko selekzioaz gainera, Europako beste selekzio batzuek ere parte hartu dute, besteak beste Italia, Danimarka, Eslovakia eta Alemania.


"Ez nuen espero itzulia amaituko nuenik. Beraz, gustura nago egin dudana lanarekin"

130 txirrindularik eman zioten hasiera itzuliari, baina haueetatik 90 inguruk amaitu zuten.

MAILA ALTUA

Esan bezala, maila oso ona izan da Suitzako sari nagusian. Europa guztiko txirrindulariak joan dira eta zaila izan da aurrean ibiltzea. Gurutzekin batera Elorriaga, Gonzalez, Lapazaran, Leinizbarrutia eta Morras joan dira Euskadiko junior selekzioarekin.

Esan digunez, ez zuen uste itzulia amaituko zuenik, baina azkenean indarrez ondo aurkitu da eta itzulia amaitzea lortu du. Denboraldi bikaina egin du antzuolarrak: abuztuan, Ergobian irabaztea lortu zuen eta beste lasterketa batzuetan ere aurrean ibili da gaztea. Selektioarekin Suitzara joatea sari bat izan dela esan daiteke. Egin duen denboraldia borobiltzeko egokia, hain zuzen ere.



Gurutz oso pozik dago Suitzan egin duen lanarekin.

GOIENKARIA

Iñigo Argandoña donostiarra Euskal Herrian dagoen xake jokalaria onenatarikoa da, eta Arrasate Hiria xake txapelketan parte hartzen dabil lehenengoz. Hala ere,

Arrasatera etorria da beste txapelketa batzuetara. Bere ustez, xakean geroz eta jende gehiago aritzen da, baina Euskal Herrian maila polita egon arren Kasparov

euskaldun bat irtetea oso zail ikusten du. Joko honek sekreturik ez omen dauka, eta Nazioarteko Maisu izateko orduak sartzea besterik ez dela egin behar dio.

IÑIGO ARGANDOÑA | GROS XAKE TALDEKO XAKE JOKALARIA

"Xakeak bizitzeko ematen du, baina ez txapelketekin bakarrik"

J. Etxebarria / J. Zabala

Arrasate Hiria txapelketan parte hartu al duzu lehenago?

Txapelketa honetan parte hartzen dudan lehen aldia da. Baina Arrasaten, bestela, askotan izana naiz. Beti etortzen naiz taldekako txapelketan parte hartzera, umeen txapelketak antolatzerara... Hemengo jendearekin harreman oso ona dut, baina txapelketara lehenengoz etorri naiz. **Eta nolatan hartu zenuen txapelketa honetan parte hartzera etortzeko erabakia?**

Aurten, denbora libre aurreratu ahal izan du egubakoitzean hona etorri ahal izateko. Aurreko urteetan beste konpromiso batzuk izan ditut, eta ezin izan dut etorri. Baina aurten libre nengoela ikusi nuenean ez nuen birritan pentsatu eta etortzea erabaki nuen.

Garai batean xakean gehiago jokatzen zen?

Nik uste ez dela horrela. Orain ere asko jokatzen da. Nik behintzat Donostia ingurua ezagutzen dut eta lehen jokatzen zutenek orain ere jarraitzen dute jokatzen; jende berria ere badago. Beraz, esango nuke gorantz datorren kirola dela. Arrasate inguru honetan ez dut ezagutzen gauzak nola dauden, baina gure antzera izango delakoan nago.

Hala ere, xakea bizibide izateko zaila da, ez?

Xakean irabazitakoarekin bizi daiteke. Baina ez bakarrik txapelketan ateratakoarekin. Lehiaketetatik bakarrik bizitzea oso zaila da, baina umeek klaseak ematen eta horrelako ekintzekin lortu daiteke. Hemengoentzat gainera geroz eta zailago dago, Europako maisu asko etortzen dira eta gurera txapelketetara eta klaseak ematera.

Zer egin behar da xakean Nazioarteko Maisu izateko?

Egia esan, nik ez dut ia ezer ikasten. Hala ere, txapelketetan nagoenean ematen ditut parti-

dako hiru edo lau ordu, eta preskaketa lanetan beste lau edo bost ordu. Bai barianteak ikasten, partidak nola hasi, nola bukatu, eta horrelakoekin.

Orduak eta orduak sartu. Besterik ez.

FIDE rankinean 2.402 puntu dituzu. Kasparov oso urrun gelditzen da, ezta?

Bai, oso urrun. Hala ere, pozik nago. Gaur egun Gipuzkoako bigarrena naiz Felix Izetaren atzetik, eta hau erretiratu dago, beraz, lehena naizela ere esan daiteke. Eta Euskadi mailan ere lehenatarikoa naiz. Hortaz, pozik egoteko moduko arrazoiak baditudala uste dut.

Eta ikusten duzu noizbait zure burua bere aurka jokatzen?

Bere aurka ez dakit, baina jende indartsuaren aurka jokatu izan dut. Gure taldean, Gros Xake taldean, Boris Gelfand dago, munduko hamaikagarrena, eta baita Holandako txapeldunak ere, eta horien aurka jokatu izan dut. Hori bai, lagunarteko partidetan beti ere.

Eta oro har zer nolako maila uste duzu dagoela Euskal Herrian?

Nire ustez, Espainiako selekzioak Europako txapelketan egin duen papera baino hobea egingo luke Euskal Herriko selekzioak. Izan ere, gure artean xake jokalari oso onak ditugu, Mario Gomez, Felix Izeta edo Santi Gonzalez, adibidez.



Lehenengoz ari da parte hartzen Iñigo Argandoña Arrasate Hiria xake txapelketan.

JASONE ZABALA

Orduan, noizko Kasparov euskaldun bat?

Agian 2.200. urtean (barreak). Egia esan, oso zaila da horrelako beste jokalaria bat irtetea.

"Arrasatera askotan etorri arren, txapelketa honetara lehenengoz nator"

"Gaur egun Gipuzkoako bigarrena naiz eta Euskadi mailan ere lehenatarikoa"

"Xakean asko jokatzen da. Gorantz datorren kirola dela esango nuke"

"Euskal Herriko selekzioak Espainiakoak baino lan hobea egingo luke European"

Xakea: kirola da, artea da, edo biak uztartzen dituen zerbait?

Batzuek kirola dela esaten dute –gehienek kiroltzat jotzen dute– beste batzuek, artea dela, eta beste batzuek ez bata eta ez bestea; matematikarekin lotutako jolasa besterik ez dela. Kontuak kontu, joan den urtean iskanbila ederra sortu zen kirol honen gainean Euskal Herrian. Eusko Jaurlaritzak ez omen zuen kiroltzat hartzen xakea. Xakelarien amorrurako, noski.

Iñigo Argandoñak horrela definitzen zigun xakea: "Lehiaketa batean kirol bat da, baina zientifikoki ere asko kalkulatu behar den zerbait da, matematika bezala. Baina partida bat arte ekintzat ere jo daiteke".

Kontuak kontu eta istiluak istilu, Eusko Jaurlaritzak onartu behar izan zuen xakea kirol bat zela. Eta gertatutako guztia, gainera, Euskal xakearendako onuragarria izan zela esan digu Argandoñak: "Eusko Jaurlaritzaren laguntza ezak ez digu gehiegi laguntzen, baina horren bitartez propaganda pixka bat egin ahal izan genuen, gu asko elkartu ginen eta mundu osotik elkartasuna adierazteko gutunak iritsi zitzaizkigun, eta alde horretatik positiboa izan zela esan dezakegu".

KULTURA 24Aisialdia eta Zerbitzuak

- Rantxera klasikoek eta bolero goxoek Uribarriko eta Erquingo bizilagunak dantzan jarri zituzten | 25
- 250 bat ume batu ziren atzo Aretxabaletako Haur Dantzarien Egunean | 27

Arrasateko Amaia antzokiko zinema emanaldiak egubakoitzean hasiko dira | 27

Karra, Karlos, *Karramarro* Elejalde, gatzagarra izanik, bere herriko jaietan izan da asteburuan. *Torapia*, bere azkeneko filma, erakustera etorri zen egubakoitzean.

Aurretik gurekin egoteko astia ere hartu zuen eta baita hainbestetan egiten dituen baieztapen bero-zoroak egiteko ere. Hamalau urte izan arte Gatzagan bizi izan

zela kontatu zigun, eta hilaren 23an Ermuan izango dela *La kabra y miss yoes* antzezlanaren aurkezten. Alaba Bartzelonan dauka, eta horregatik, han bizi da.

KARRA ELEJALDE | AKTOREA

"Airbag filmaren bigarren zatia idazten ari naiz, eta hori primizia da!"

Marijo Deogracias

Zure biografia guztietan arabarra, Gasteizkoa, zarela esaten da. Zein da Gatzagarekin duzun hartu-erama?

Niri, Zubizarretari eta beste hainbesteri gertatu zaigu hori. Gasteiztik oso gertu eta Donostiatik oso urruti dauden herrietakoak gara eta gure amak, erditzera, Gasteizera joan behar izan zuen. Dena dela, 14 urte izan nituen arte Gatzagan bizi izan nintzen, nire haurtzarora nerabezarora eta pubertatea hemen bizi izan nituen; orduko oroitzapen asko ditut.

Bestalde, ostalaritza eta ikuskizun munduan -aktoreei sasoi baten egiten zizkiguten kontratuak toreatzaile eta menpekoei egiten zitzaizkienak ziren- hainbeste denbora egin izan arren, Gatzagan esaterako, ez dut sekula ikuskizunik egin; zinerik ere ez dut ikusi inoiz hemen. Hortaz,

eta jaietan, zerbait egiteko proposatu zidatenean asko poztu nintzen. Landan ginela proposatu zidaten eta nire azkeneko filma ekartzea erabaki nuen. Hala ere, ez nuke hemerrotekan "zinea Gatzagara ekarri zuen leloa legez" agertu nahi, baina aitortu behar dut gauza ederra iruditzen zaidala zinea kalean erakustea, hemen, Gatzagan.

Urtebete pasatxo da *Torapia* filma estreinatu zenuela eta orduan aitortu zenuen beldur pixka bat bazenuela jendearen erantzunarekin, "astakeria" bat bailitzan hartzeko arriskua bazegoelako.

Ez zen beldur kontua. Ridley Scottek esaterako, *Blade Runner* egin zuen, baina gero *Allien* egin zuen. Eta zuk berriz lehenengo *Airbag* egiten duzu, gero *Año Mariano* eta hurrengoak ere ildo bera jarraitu behar duela uste izaten du jendeak. Zergatik ezin duzu zerikusirik ez duen zerbait egin? Horixe zen nire kezka. *Tora-*



Umetan herriko pilotalekuan aritzen zela eta hantxe izan ginen argazkiak egiten.

"Gatzagako jaietan zerbait egiteko proposatu zidatenean asko poztu nintzen"

"Ez nuke agertu nahi hemerrotekan zinea Gatzagara ekarri zuen leloa legez"

"PPrendako zein PSOErendako Espainiako bandera bera da eta ereserki nazionala ere bai"

"Potroetaraino nengoen España va bien hura entzuteaz behin eta berriz"

pian autore-zinera itzuli nahi izan nuen; Berlanga eran izan barik, Buñuel eran: super 16an errodatzen, granoduna, itsusikeriari kultura... Baina produktoreek saldu egin nahi izaten dute. Hori dela eta, *Airbag* eta *Año Mariano*ren hurrengoak dela esaten aritu dira eta ni, berriz, kontrakoa azaltzen.

Film mamitsu, baina ez hain grafikoa egin gura izan dut.

Nori egingo zenioke *Torapia*?

Torapia egiten hasi nintzean PP zegoen Espainiako gobernuan eta amaitu genuenerako, berriz, PSOE iritsi zen gobernura. Bata zein bestearendako Espainiako bandera bera da,

ereserki nazionala bera da... Baina nire filman Espainiako gobernuko ministroak PPkoa izan edo PSOEkoa izan konnotazio desberdinak ditu. Egia da nahiago dudala PP egon ordez PSOE egotea gobernuan, baina filmari ez zitzaion batere ondo etorri aldaketa hori.

Dena dela, potroetaraino nengoen “España va bien” hura entzuteaz. Hori horrela bazen, norbaitek psikiatrarangana joan beharra zuela pentsatu genuen –edo hori edo tripi bana jan beste guztiok–. Hortaz, kontuan izan beti izan naizela auzi galduen defendatzaile sutsua, umorea erabiltzea erabaki nuen. Umorea subertsio bide paregabea da eta ni ez banaiz zer baiten alde eta norbaiten kontra jartzen ez naiz konforme egoten.

Def Con Dos taldeak PP gobernuan egon zen bitartean laga egin zion taulara iqtzeari. PSOE dagoene-

tik diskoa kaleratu dute PPren gobernu salatzeko eta kontzertuak egiten ari dira.

Begira, gogoan daukat, behinola proposatu nuela, goazen denok portugaldar egitera. “Portugaleko zinema berria” esango dute hor zehar: Julio Medem, Galparsoro, Alex de la Iglesia, Juanma Bajo Ulloa, Enrique Urbizu, Gorka Aginagalde, Karra Elejalde, Unax Ugalde –alde guztiak–... eta denok portugaldarrak edo somaliarrak egingo gara. Azken baten inor ez da profeta bere aberrian. Ni neuk Bartzelonara joan beharra izan nuen! **Horren haritik, badakizu Donostiako Zinemaldian bi euskal film estreinatuko direla aurten?**

Ez dugu gurea baloratzen. Gurearen oso abertzaleak izan arren, kanpotik datorrena beti hobea dela uste izaten dugu. Nik hemendik alde egin behar izan nuen lan egiteko. Hemen anarkista bat baino ez nintzen, komunista izan ondoren eta abertzalea ez izateagatik, anarkista egin nintzen.

Hortaz, Donostiako zinemaldira joateko asmorik?

Ez. Bartzelonan bizi naiz, nire alaba han daukat eta *Airbag* filmaren bigarren zatia idazten ari naiz –eta hori primizia bat da! (barreak). Javier Reboloren *Locos por el sexo* filma amaitu berri dut eta bakarrizketarekin ere banabil. Tarteka idatzi egiten dut eta telebistarako eskaintzaren bat ere izan dut. Hortaz, geratu barik nabil.

Eta Ermura etorriko zara laster *La Kabra y miss yoes* antzeztera. Zer da hori izenburu horrekin?

Irailaren 23an Ermuan eta 24an Elorrion izango gara. Ni psikiatrak, auzoko katekesi taldekoek, Sor Begoña Arrizabalagak eta birgizarteratzen laguntzen didaten guztiak diote guztiok ditugula “ni” mordoa. Ez da ni bera amorantearekin dagoena eta emaztearekin dagoena, esaterako. *Karramarro* da ni eta beste hamazazpi pertsona, eta zentzu horretan *La Kabra y miss yoes* litzateke *La Kabra* eta taula gainera ateratzen diren hogeitaka pertsonaia. *Etc, Etc*, bakarrizketa haren enegarren bertsioa da. Gauza berriak ditu.

Ni gehiago ditu, hortaz?

Ez, ze orduan zu asko ziren eta orain, berriz, ni asko dira. Hala ere, jendea harridura sortzen dion izenburua da.

Hogeitaka film egin dituzu eta aurretik hainbeste telebista saio eta antzerki lan egindakoa zara. Aukeratzetik bai?

Askotan galdetu didate hori eta argi daukat: antzerkia maila goreneko interpretazio ariketa da, beti. Ekonomikoki zinea errentagarria da, jakina, eta ez dizu antzerkiak besteko zorroz-

tasunik eskatzen interpretazioan. Telebistak, berriz, medioaren dinamikagatik-edo, ez dizu perfekzioa iristen lagatzen.

Hortaz, zorrotasun aldetik antzerkia, zinea, telebista jarriko nituzke zerrendan eta ekonomikoki, telebista, zinea, antzerkia.

Nire kasuan, ordea, zinea jarriko nuke lehenengo, lanik gehienak hortxe egin ditudalako eta denetarik pertsonaiak gartzeko aukera eman didalako.

Zinean pertsonaia marginalak egitetik –*Salto al vacío* filman drogazalea, polizia ustela *Días contados* filman eta psikopata *La madre muerta* filman– zoro imajinaezinarena egitera. *Karramarro* gaiztorik ikusiko dugu berriz?

Hain justu alderantziz dela esango nuke. Zinean hasi aurretik antzerkian talde lanak egiten aritu nintzen hamar urtez eta gure lanak aldarrikatzaile eta borrokatzaileak ziren, baina alderdi komiko batetik landuta. Bajo Ulloak *La madre muerta* pertsonaia nagusiaren lana eman zidanean, munduari eta neuri erakutsi zigun gai nintzela bestelako paperak egiteko, inork ez lukeenean nire alde egingo gauza serio bat egiteko.

Aldiz, lan hura egin ostean, inork ez zuen imajinatzen gai izango nintzenik komedia egiteko. Azkenean, bi urte pasatzen badituzu komedia lanak egiten, jendeak uste izaten du ezin duzula bestelakorik egin eta jakina, hori ez da horrela. Nik neuk erakutsi dut, baina aldiro erakusten aritu beharra izaten duzu zinean.

Orduan zer, ikusiko dugu Karra gaizto eta gogor gehiago?

Bai horixe! Jakina, dantzan segurutik ez, batetik ez zaidalako horrelakorik egitea gustatzen, baina zaldian ibiltzen ikasi behar badut, egingo dut. Hala ere, zintzo esateko, antzezpenzale borrokatua naiz eta beste batzuen azalean sartzea atsegin dut, neurea dela jakinda. Zorrotasun bera ematen diet komedia zein bestelako lanei.

Ikusi duzun azkeneko filma?

Sin City. Benetan berezia iruditu zitzaidan. Tarantino-Robert Rodriguez binomioak oso ondo funtzionatu izan du beti; bi ganberro dira. Euskaldunak izan beharko lirateke.

Eta ze film gomendatuko zenieke gure irakurleei?

Badago bene-benetan deigarria iruditu zitzaidan filma bat: Kubricken *Senders de Gloria*. Antimilitarismoaren auzia plazaratzen du, alde bikoitz batetik. Aliatuen aldetik aurkezten du antimilitarismoa. Zuri-beltzean da pelikula eta zoragarria da. Ikusi behar den filma da, antibelizista bazara.

• ARRATSALDE PASA KARRA ELEJALDEREkin




PILOTARI OHIA. Herriko mutikoekin pilotakada batzuk egiteko sasoiari dagoela erakutsi zigun Karra Elejaldek. Harro-harro esan zion herriko agureari: “Hi, ez zaidak ahaztu!”



EURIA EGIN AURRETIK. Zine emanaldia kalean egin nahi izan zuten, baina plaza bete eta segituan euria hasi zuen eta frontoira mugitu behar izan zituzten proiektorea eta pantaila erraldoia.



DENA GERTU. Karra Elejaldek *Torapia* filmaren bere kopia ekarri zuen Gatzagara. Bera aritu zen azkeneko ukituak egiten, berarekin batera etorri ziren lagun eta herritarrekin batera.



'TORAPIA'. Zuzendu, idatzi eta antzetzu egin du Karra Elejaldek *Torapia* filma. Jenio txar handiarekin eginda dagoela aitortu zuen filmaren aurretik. Lastima soinuua ez zela onena izan.

“Gurearen oso abertzaleak izan arren, kanpotik datorrena beti da hobea”

“Argi daukat: antzerkia maila goreneko interpretazio ariketa da, beti”

“Tarantino eta Robert Rodriguez euskaldunak izan beharko lirateke”

DANTZA | MOISES AZPIAZUREN OMENEZKO DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA BARIKUAN JOKATU ZEN BERGARAN

Maite Lazkano eta Asier Ena jaun eta jabe dantza solteko txapelketan

Sei bikote aurkeztu ziren Bergarako txapelketara, baina ez zen ezusterik izan. Maitek eta Asierrek garaipena zein Moises Azpiazu saria jaso zituzten urteko azken hitzorduan

Larraitz Zeberio

Amaitutzat jo dezakegu dantza solteko txapelketen denboraldia. Atsedendaldia hartu aurretik, ordea, urteko azken hitzordua jokatu zen Bergaran; Abarka eta Moises Azpiazu taldeek Udalarekin batera antolatzen duten Moises Azpiazuren omenezko txapelketa, hain zuzen ere.

Denboraldi oparoa izan dute aurten Maite Lazkano eta Asier Ena bergararrek. Amaierara arte izan da gainera oparoa, eurak nagusitu dira eta aurten ere Bergarako txapelketan.

Barikuan jokatu zen txapelketa eta sei izan azkenean Bergarako frontoira lehiatzen hurbildu ziren bikoteak. Pena izan zen Azkoitiko Azpitarte anai-arrabek kale egitea; izan ere, lehia-kide gogorak izan dira aurten ere Maite eta Asierrendako.

URTEKO BIKOTERIK ONENA

Hamalau txapelketatan hartu dute parte aurten Maite eta Asierrek. Garaipena lortu dute hamabi hitzordutan; Estibalitz, Beasain, Lezo, Hernani, Asteasu, Irun, Hondarribia, Errenteriako Gipuzkoako txapelketa, Ibarra, Zarautz, Donostia eta Bergarako txapelketetan. Segura eta Elgoibarko hitzorduetan egin die ihes garaipenak, tartean Seguran jokatzeko den Euskadiko txapelketak.

“Urte oso borobila egin dugu aurten. Denak izan dira onak, baina aurtengoa bikaina izan da benetan”, esan zigun Maite Lazkanok Bergarako txapelketa bukatu bezain laster. Herriko txapelketa irabazteak esanahi berezia duela ere adierazi zigun. “Herriko jendearen aurrean aritzeak urduritasun gehiago ematen du, baina polita ere bada. Herrian irabaztea berezia da”.

Maite eta Asierrek, txapelketako garaipena eskuratzeaz gain, Moises Azpiazuren familiak urtero ematen duen saria ere eraman



Asier Ena eta Maite Lazkano bergararrek sei urte daramatzate elkarrekin dantza egiten.

Emaitzak

IZEN DEITURAK	PUNTUAK
1. Maite Lazkano (Bergara) Asier Ena (Bergara)	219,5
2. Miren Illarreta (Donostia) Aitzol Ena (Bergara)	206,5
3. Nagore Narbarte (Asteasu) Mikel Mujika (Asteasu)	194,25
4. Lierni Martiarena (Hernani) Xabier Segura (Hernani)	190,75
5. Ibane Baseta (Bergara) Mikel Igartua (Bergara)	186
6. Janire Urbietta (Bergara) Alex Torre (Bergara)	182,5

zuten etxera txapelketako lehen bikote bergararra izatearren.

ETORKIZUNA ERABAKITZEKO

“Nik beste urte bat eskatzen diot Asierri baina ez du nahi”, azaldu zigun Maitek. Bergararrak, ordea, ez du amore eman nahi. “Atsedean

hartzen utziko diot orain eta lasaitutakoan konbentzitzen saiatuko naiz”. Maitek 25 urte ditu eta Asierrek 26. Dantzak denbora asko kentzen diela aitortu ziguten. Asier, gainera, Donostian bizi da eta kilometro askotxo egin behar dituzte elkarrekin entseatzeko.

Irabazleek hamabi garaipen lortu dituzte aurten. Bitan ihes egin die garaipenak

Maitek urtebete eskatzen dio Asierri baina honek txapelketak uzteko garaia dela uste du

TXAPELKETA POLITA

Maitek eta Asierrek urtarrilerako erabaki behar dute dantzan jarraitu ala ez. Bitartean, eta Bergarako txapelketan ikusi zenez, dantza solteak badu etorkizunik Bergaran. Herriko hiru bikote eta zazpi dantzari aurkeztu ziren txapelketara.

“Bergaran kalitate handiko dantzariak daude”, azaldu zigun Joxe Juan Ugalde epaimahaikideak. “Lan handia egiten ari dira bertako dantza-taldeak. Txapelketara aurkeztu diren bikoteen maila ikusi besterik ez dago”. Esan beharra dago publikoa ere ugari bildu zela frontoian.

Alardea aterpean egin zuten umeeek

Aretxabaletako Haur dantzarien egunean goizez bakarrik egin zuten dantza kalean. Alardean 250 umeak frontoian aritu ziren

Asteleheneko Goienkaria

Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu, Bergarako Gazte Alai, Antzuolako Oinarin eta Oñatiko Oñatz dantza taldeak aritu ziren

anfitrioiekin, Aretxabaletako Loramendi taldekoekin. Guztira 250 ume izan ziren goizean herri erdiko lau gunetan dantzan eta arratsaldean, euria tarteko, pilotalekuan.

GIRO BIKAINA

Herriko bost elkartetan jan zuten umerik gehienek. 100 bat jendeak hartu zituen etxeetan.

Alardea 17:00etan hasi zuten pilotalekuan eta egin beharreko dantzen ostean, txulalai, arinarin eta fandangoa dantzatu zituzten elkarrekin, aparteko giroan.



Makil dantza ere egin behar izan zuten alardean dantzari txikiek.

MUSIKA | GARIBALDI TALDEKO MARIATXIAK ENTZUN ZIREN ZAPATUAN ARRASATEKO URIBARRI-ERGUIN AUZOKO JAIETAN

Rantxera klasikoak eta bolero goxoak Uribarriko auzotarren gozamenerako

Gustura ikusi genuen jendea zapatu gauean Arrasateko Uribarri-Erguingo jaietan. Asko mariatxiak entzutera hurbildu ziren; tartean dantzari finik ere nabarmendu zen

Larraitz Zeberio

Mexico Lindo, Jalisco, El Rey, El Rancho Grande, Guadalajara, Cielito Lindo... Rantxera erreperitorio klasikoarekin etorri ziren zapatuan Arrasateko Uribarri-Erguin auzoko jaietara Garibaldi taldeko sei musikariak. Auzotarrek harrera bikaina egin zieten, eta baita Uribarrira rantxerak zeudela eta bereziki hurbildutako gainerako entzule gutziek ere.

Ordubeteko saioa egin zuen Madrildik etorritako taldeak. Emanaldiaren hasieran eta plazako giroa berotzen joateko denontzat ezagunak diren rantxerak jo zituzten. Umeak izan ziren dantzan hasten lehenak. Laster animatu ziren dantzarako

gogoz etorritako hainbat bikote, tartean, nahiz eta ezezko asko jaso, ordubetea dantzan gelditu gabe aritu ziren bizpahiru gizonetako.

DANTZA SAIO LUZEA

Biolina, akordeoia, bi tronpeta eta Mexikon *vihuela* eta *gitarron* ize naz ezagutzen diren bi gitarrak osatzen dute Garibaldi mariatxi taldea.

Mexikoko musika tradizionalari errepaso zabala egin zitzaion zapatuan Uribarrin. Rantxerak, boleroak, baltseak, korridoak, eta polkak entzun ziren, eta baita publikoak musikariei bereziki eskatutako zenbait pieza ere.

Gaua ez zen rantxerekin amaitu Uribarrin. Jarraian, Oñatiko Kaixo taldeak alaitu zuen festa.



Garibaldi taldeko sei musikariak Mexikoko jantzi tradizionalekin aritu ziren Uribarrin-Erguinen.

AINZANE AGIRRE

AEK, Euskararako zeure garraiobidea



Helmuga Euskara!

Sinbologia:

Freskatu zeure euskara

Ikasgu hornituak

Egon zaitez eroso

Banakako irakaskuntza


EGA, hizkuntz eskakizunak

Metodologia komunikatiboa

Euskal Herria euskalduntzen

Ikasgu homologatuak

Gorde zeure eserlekua!



EUSKARA IKASTAROAK 2005-2006

- Maila guztiak
- Perfilak eta EGA
- Mintzapraktika eta alfabetatze

Matrikula epea: irailaren 1etik 27ra.

Informazio eta matrikula:

ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai 14, 3. ARRASATE.
Tel.: 943 77 03 69
arrasate@aeknet.net

AKULU AEK EUSKALTEGIA
Masterreka 13, behea. BERGARA
Tel.: 943 76 05 18
bergara@aeknet.net



MARIJO DEOGRACIAS

Malenkonia taldekoak izan ziren lehenengoak taulara igotzen.

Giro polita egon zen egubakoitzeko kontzertuan

Malenkonia, Show Business, 23 F eta Arian Rod taldeak aritu ziren zuzenean Gatzagako herriko plazan

Non. Gatzagako plazan.
Zenbat jende. 150 bat lagun.
Iraupena. 3 ordu eta erdi.

Asteleheneko Goienkaria

Gatzagako jaietan askotariko musika entzun ahal izan dugu zuzeneko emanaldian. Lau talde aritu ziren egubakoitz gauean herriko plazan: popa, 60ko hamarkadako rocka, punka eta metal doinu eta erritmoak batu

zituena emanaldiak. Euria egin zuen arren, giro polita izan zen. Gainera, kontzertuaren erdi aldera atertu egin zuen eta horrekin batera jendea gehiago animatu zen, aterpetik atera eta aterkia itxi ostean.

Oñatiko Malenkonia taldeak ekin zion emanaldiari. Pop erritmoek dantzarako aukera eman zuten berrogei bat minutuz, baina euria ziharduenez, giroa epeldu baino ez zuten egin. Segidan Oñatiko Show Business taldearen txanda izan zen. Hauek sasoi bateko musikari

keinu eginez, 60ko hamarkadako estiloaz aritzen dira. Nagusiagoek gozatzeko aukera izan zuten txantxikuarrekin.

ATERTU ETA GERO

Hirugarrenak taulara igotzen bestelako doinu gogorragoekin egin zuten. Arrasateko 23 F taldekoak izan ziren. Punk doinuak jotzen dituzte eta gogor aritu ziren mondragoetarrak. Euren lagun taldekoak ere erabat animaturik ibili ziren plazan, ordurako ateri baitzegoen.

Goizeko ia hirurak zirela Eskoriatzako Arian Rod taldearen txanda izan zen. Hauek ere berrogei bat minutuko saioa egin zuten, goizeko 3:30ak arte, ileak astintzen metal doinuekin. Giro polita, benetan.

80ko hamarkadako musika elektronikoaren sei orduko saioa egin zuen KRCK

Begarako Ziripot tabernak hartu zuen egubakoitzeko saioa. Gaur egungo musika elektronikoa ere nahastu zuen tarteka

Asteleheneko Goienkaria

Begarako Ziripot tabernak aste-oro egiten duen disko-jartzaileen saioan, Begarako KRC disko-jartzailea aritu zen joan zen egubakoitzeko. Gaueko 22:30ak bueltan hasi zen 80ko hamarkadako pop elektronikoa pintxatzen eta sei orduz aritu zen egubakoitzeko egoten den giro lasaia animatzen.

60 DISKOTIK GORA

Sei orduko saioa egiteko disko mordo behar izaten dira eta KRCK kontatu ez dituen arren, "60-70 bitartean izaten ditut saio

bakoitzeko. Sei orduko saioa izan da eta behar izaten da materiala", aitortu zigun disko-jartzaileak saioaren amaieran.

80ko hamarkadako doinuak gaur egungo pop elektronikoarekin nahastea du gustuko KRCK eta besteak beste, New Order, The Cure edo Madonnaren doinuak jarri zituen egubakoitzeko.

Ez da jende askorik aritzen egubakoitzeko parrandan; hori dela eta, Ziripoteko saioa lagun arteko musika sesioa izan zen. Jende multzo nahikoa musika ezagun eta dantzagarria gustura entzuteko ordu txikietara arte; goizeko 03:30ak arte.



AINTZANE AGIRRE

KRC jendea animatzen musika jartzen duen bitartean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Ikastaro guztiz berriak antolatu ditu Bergarako Udal Kultura Sailak

Sendabelarrak, altzariak berritzea eta jendaurrean hitz egitea dira ikastaroon gaiak. Lehen aldiz emango dituzte

Leire Kortabarria

Ikastaro berriak antolatu ditu aurtien Bergarako Udal Kultura Sailak, orain arte Bergaran eman ez direnak: sendabelarren gainekoa, altzariak zaharberritzen ikastekoa eta jendaurrean hitz egiten ikastekoa. Ikastaroak urri, azaro eta abenduan izango dira; Udalak erabaki dute ohi baino laburragoak egitea, hain zuzen, ikusteko jendeak zelan erantzuten dien berritasun horiei.

Sendabelarren ikastaroa eguenetan emango du Jaione Laboa adituak 16:00-18:00 orduetartean. Sendabelarrak ezagutzen, gehien zeintzuk erabili izan diren eta erremedio batzuk

egiten irakatsiko du. Oso orokorra izango da.

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa eguaztenetan izango da, 19:00etatik 21:00etara, Rakel Urizarren eskutik.

Jendaurrean hitz egiten ikasteko jardunaldiak Amparo Urkola psikologoak emango ditu astelehenetan, 19:00-21:00 orduetartean. Batez ere, lanagatik trebezia hori menperatu behar dutenendako daude zuzenduta saio horiek.

Izena emateko mugaeguna da irailaren 23an, kultura etxean. Bergaran erroldatuek 15 euro ordaindu behar dute hilean; gainerakoek, 20 euro.

ESKORIATZAN, MARGOAK

Hilaren 23an ere bukatzen da Eskoriatzako margo ikastaroan izena emateko epea. Kultura etxean egin behar da, eta 80 euro da urritik ekainerako matrikula. Zapatutan izango da ikastaroa, 14:30etik 17:30era.

14 urtetik gorakoei dago zuzenduta ikastaroa, eta ez da aurreko mailarik behar. Argibideetarako, deitu 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Labur

Oñatiko jaietako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du Laixan elkarteak

San Migel eta Errosoxo jaietarako 4.000 pegatina atera gura ditu Laixan euskara elkarteak, eta pegatinetan agertuko den leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du. Baldintza bakarra da euskara eta jai lotu behar direla.

Bi aukera daude proposamenak bidaltzeko: bata, laixan@topagunea.com helbide elektronikora; bestea, herriko tabernetan ipini dituzten kaxa eta paperetan. Hilaren 18ra bitartean duzue parte hartzeko aukera. 60 euro da saria.

Amaia antzokiko zinema emanaldiak egubakoitzean hasiko dira

Arrasateko zinema denboraldia egubakoitzean hasiko da, *La guerra de los mundos* filmarekin. Hil honetan beran, Asier Altuna bergararraren *Aupa, Etxebeste* filma estreinatuko da. *Semen, una historia de amor*, *Agur*, *Everest* eta *Hierro3* dira iraileko beste filmak.



I. San Martin Argazki Rallya antolatu dute Bergaran datorren asteburuan

San Martin Agirre jaien barne, I. San Martin Argazki Rallya antolatu dute. Domekan, irailak 18, jokatu da, eta Pol-Pol argazki taldearen egoitzan eman behar da izena (Zabalotegi, 5; 09:00-09:30).

Diapositiba eta argazki digital modalitateak deitu dituzte. Lau gai ipiniko dituzte, eta egunean bertan jakinaraziko dituzte. Lehiakide bakoitzak gai bakoitzeko diapositiba edo irudi digital bat aukeratu behar du parte hartzeko. Kategoria bakoitzeko sariak dira 120, 100, 80 eta 60 euro eta garaikurra.

Hitzorduak



TXOKOLATEAREN GAINEKO ERAKUSKETA ZABALDU DUTE OÑATIN | Hilaren 17an, Artisau Txokolatearen Nazioarteko I. Azoka egingo dute

Txokolatearen gaineko erakusketa zabaldu du Oñatin Klaxk Txokolateroen Elkarteak. Kultura etxean duzue ikusteko modua, astelehenetik domekara, 18:30-20:30 orduetartean. Txokolate estalkiak, argazki zaharrak, kakaoa ekartzen zuen galeoi baten maketa eta beste bitxikeria batzuk daude ikusgai.

Erakusketa hori Klaxk elkarteak antolatu dituen beste ekintza batzuen ataria besterik ez da. Hala, irailaren 16an, egubakoitza, txokolateaz hitzaldia egingo dute kultura etxean 18:00etan, eta hilaren 17an, zapatua, mundu osoko txokolate egileek azoka egingo dute.

ZINEMA |

- **Los cuatro fantásticos** filma emango dute Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean. Ikuslearen eguna da.
- **Cliente muerto no paga** filmaren emanaldia Elgetan Zineklub emanaldien barne, *Cliente muerto no paga* filma emango dute Elgetako Espaloia antzokian etzi, eguaztena, 21:30ean.

IKASTAROAK |

- **Flashget** ikastaroa emango dute Eskoriatzako KZGunean *Flashget* delako Interneteko ikastaroa emango dute datorren egubakoitzean, hilak 16, 11:00etatik 13:00etara.
- **Hainbat ikastaro aukeran Aretxabaletako KZGunean** KZGuneak ohiko jardunari ekin dio. Hala, Interneten ibili gura dutenek horretarako aukera dute 16:00etatik 20:00etara bitartean. Bestetik, honako ikastaroak antolatu dituzte: oinarriko Internet ikastaroa (irailak 5-20), *NagusiWeb* (irailak 5-13) eta *Zure egunkaria irakurri* (irailak 15). Hil osoan, ikastaro gehiago egongo dira.
- **Bergarako KZGunean, Internet ikastaroak** Bergarako KZGunean jakinarazten du Interneteko oina-

rrizko ikastaroa emango duela irailaren 21era bitartean, 09:00-11:00 eta 16:00-18:00 orduetartean; eta irailaren 19tik 30era bitartean, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 orduetartean. Horrez gain, hainbat mintegi ere emango dituzte irail osoan. Izena emateko, jo KZGune, Irizar jauregian.

- **Elikaduraren gaineko bekak, Eroski fundazioaren eskutik** Eroski fundazioak ikerketa zientifikoaren inguruko formaziorako bekak deitu ditu, unibertsitateko goi mailako tituludunendako. Hezkuntza eta ikerketa zientifikoa bultzatu gura ditu osasun eta elikadura arloetan. Dirulaguntza 18.000 eurokoa izango da. Irailaren 30era bitartean dago epea Eroski Fundazioarekin harremanetan jartzeko.

LEHIAKETAK |

- **Jazz talde berriendako lehiaketa antolatu dute** Disko-kontraturik ez duten jazz taldeendako Debajazz lehiaketa deitu du Soroluzeko Errabal kultura elkarteak. Izena ematearekin bat, kalitatezko grabazio bat aurkeztu behar da, argazkia eta taldearen gaineko dossiera. Saria da 1.500 euro eta diskoa grabatzea. Irailaren 22an bukatzen da epea. Argibideak, 943 75 30 16 telefono zenbakian.

MUSIKA |

- **DJ Ene! eta DJ Alkateren emanaldia Bergaran** DJ Ene! (Kogollo party krew) eta DJ Alkate (Somango) disko jartzaileek emanaldia egingo dute eguenean, hilak 15, Ziripot tabernan, 23:00etan.

DEIAK |

- **Goikobaluk etzi, eguaztena, hasiko du ikasturtea** Gazteekin hasiko du ikasturtea Goikobaluk etzi, eguaztena, 19:30ean. Izartxoekin eta Txikiekin, berriz, irailaren 15ean hasiko da, 18:00etan eta 18:45ean.

ERAKUSKETAK |

- **Eli Mendiaren margolan erakusketa Arrasaten** Eli Mendi margolariaren lanak egongo dira Harresi aretoan hilaren 14tik 30era bitartean, honako orduetartean: aste-gunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, horrez gain, 12:00-14:00.

MUSIKA |

- **Oñatiko Ganbara Abesbatzaren eskaintza** Ganbara Abesbatzak dei egiten du bere taldeetan izena emateko: Kantu Tailerra (5-6 urtekoendako), Ganbara Txikitxo (7-9 urte) eta Ganbara Txiki (10-16 urte). Argibideetarako, jo www.ganbara.org webgunera.

Zorion agurrak



ARRASATE
Alaitz Abasolo
Irailaren 1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Amaia Arejolaleiba
Irailaren 3an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Unai Agirre
Irailaren 8an, 5 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Naroa.



ARRASATE
Maia Iribecampos
Irailaren 10ean, 9 urte. Urte askotarako! Tia Karmele eta tio Javi.



ARRASATE
Josu Kortabarria
Irailak 10ean, 9 urte. Zorionak. Etxekoak.



BERGARA
Laura Cid
Irailaren 13an, 12 urte. Zorionak! Leire, Oier eta Maria.



ARRASATE
Rafi Gimenez
Irailaren 14an, 24 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familiakoak.



ARRASATE
Igone Urtzelai
Irailaren 14an, 23 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familiakoak.



ARRASATE
Oxel Arriaran
Irailaren 16an, bi urte. Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Ziortza Ibaibarriaga
Irailaren 7an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Endika, Iker eta Josu.



BERGARA
Alex Azkarate
Irailaren 8an, urte-betetzeara. Zorionak bizarbalzt! Lankideak.



BERGARA
Leire Agirre
Irailaren 8an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familiakoak.



BERGARA
Aitor Olañeta
Irailaren 13an, 9 urte. Zorionak! Amatxo, aita eta Olatz.



BERGARA
Joane Lizarralde
Irailaren 16an, urte-bete. Zorionak eta urte askotarako! Ugarririkoa familia.



BERGARA
Beñat Pelicano
Irailaren 13an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak eta bereziki Nagore.



ELGETA
Ainhoa Ugaldea
Irailaren 13an, urteak. Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.




ELGETA
Jabier Larrañaga
Irailaren 18an, urte asko. Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



Hildakoak

Agustin Sandoval Revuelta
Aretxabaletan, irailaren 9an. 81 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

82 euro
943 76 92 71

Jaiotakoak



Josu Urizarren Arrese
Aretxabaleta • 3,470 Kg. Irailak 6.
Gurasoak: Niko (Arrasate) eta Gotzone (Aretxabaleta).
Argazkian: Josu gurasoekin.



Enara Alberdi Hernandez
Antzuola • 2,910 Kg. Irailak 8.
Gurasoak: Mikel eta Anabel (Antzuola).
Argazkian: Enara amaren besoetan.



Jon Iturbe Otxoa
Arrasate • 3,920 Kg. Irailak 9.
Gurasoak: Jose Mari eta Idurre (Arrasate).
Argazkian: Jon amaren besoetan.



Aratz Goya Urain
Arrasate • 3,720 Kg. Irailak 10.
Gurasoak: Xabier (Idiazabal) eta Irune (Arrasate).
Argazkian: Aratz bapo lo.



Mikel Arza Maiztegi
Oñati • 3,850 Kg. Irailak 10.
Gurasoak: Fernando eta Miren (Oñati).
Argazkian: Mikel bapo lo.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN

Ikaskideak,
lagunak edo
senitartekoak
zoriondu
nahi badituzu,
**ARRASATE
IRRATIAK**
egunero ematen
dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com
helbidera
edo deitu
943 71 17 31
telefonora.



Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
**ARRASATE
IRRATIA**

Irailaren 12a: 055 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 12, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

SAMSUNG etxeko telebista (21").


- Itziar Lizarralde (Bergara)

Hiru gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).


- Lurdez Azkarate (Eskoriatza)
- Luis Arregi (Oñati)
- Jose Alberto Amilibia (Bergara)

Irailaren 19ko sariak

- Hiru gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).



- **MUNDUMIRA**-ko kamiseta bat.



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, **ASTELEHENKO GOIENKARIA**ren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

Hamarrekoa

MACREA CLARKE | UMORISTA

"Ez zait garagardoa gustatzen; alde horretatik ez dut irlandarren antzik"

Oihana Elortza

1. Urretxun ala Zumarragan bizi zara? Urretxun. Hala ere, inoiz ez diot garrantzirik eman bi herri hauek bereizten jakiteari, euretako bat bilakatuko nintzateke bestela.

2. Zure familiaren erruz utzi ei zenuen Irlanda. Egia da? 10 anai-arreba gara eta asko ginen etxe txiki baten bizitzeko. Egoera sozialak ere ez zuen asko laguntzen eta lan bila Londresera joatea erabaki nuen.

3. Zein izan zen zure lehen-dabiziko lana? Irlandar peto bat legez, eraikuntzan hasi nintzen lanean, ospitale bat eraikitzen.


4. Lana bakarrik egin zenuen Londresen? Eraikuntzako lana utzi eta motxilekin etortzen ziren gazteek ostatu hartzen zuten hotel batean hasi nintzen gero lanean. Hantxe ezagutu nuen nire emaztea, Karmele. Ingelesa ikastera eta lanera joanda zegoen bera Urretxutik Londresera. Gure alaba ere Londresen jaio zen, duela bederatziru.

5. Eta Londresen hasi zinen umorea egiten? Bai, Liverpool kaleko taberna batean. Agertokira igo eta jendea barre eginarazten hasi nintzen. Mikrofonoa hartzen nuen lehenengo aldia zen eta gustatu egin zitzaidan. Harrezkero saioak hobeto prestatzen eta gehiago ikasten saiatu naiz. Hitz-jokoak asko gustatzen zaizkit eta nire hanka sartzeak askotan erabili ditut. Hizkuntzak ondo ezagutu nahi ditut hitzei zukua ateratzeko. Gaztelania eta euskara ikasten ari naiz, baina ez dut presarik, denbora izatea da nire pribilegioa.

7. Ze kolore du 'Bakearen eta umorearen furgoneta'? Nahi duzuna, irudimenezkoa da eta, benetakoa erosteko dirurik ez dago.

8. Azpiko mezurik badu? Furgoneta bakeraino heltzea nahiko nuke. Orain badirudi badagoela bakerako bide bat eta ea ez den bidea zapuzten, ez jaioterrian ezta bizi naizen herrian ere.

9. Ile luzea izan duzu beti? Ez. Amak ez zidan uzten eta Euskal Herrian utzi dut ilea luzatzen.



AINZANE AGIRRE

Ipar Irlandan jaio zen, Derryn, eta bere benetako izena da Macrea Clarke, ez da izen artistikoa. *Bakearen eta umorearen furgoneta* ikuskizuna aitzaki hartuta, Euskal Herriko 30 herri baino gehiagotan egon da; asteburu honetan, Aramaion. Duela zazpi urte hona Urretxun bizi da. Hemen ikusten ditugun taberna irlandarrek benetako antz handirik ez dutela dio.

10. Zer da garagardoa baino hobea? Gauza asko. Begi urdinak eta ile horia ditut, azala ere zuria, ia gardena, baina garagardo kontuetan ez dut irlandarren antzik. Garagardo beltza

ez zait gustatzen eta argiak ere ez dit graziarik egiten. Euskal Herrira etorri nintzenean hemengo edari guztiak probatu nituen eta txakolina da gustatzen zaidan bakarra. Burura azkar igotzen da, ordea.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Ahuntzak beti larrera

Ez dut nik esaten; esaera zaharrak dio eta baita **Karra Elejalde** ere. Gatzagan sortua, han izan da asteburuan jai nagusietan. Anarkista, ahoan ilerik ez duena eta aldi berean, bere penak entzuteko gertu dagoen guztiari berriketaldia ematen diona. Horrela aritu zen, kubata esku baten eta berak deitzen duen txurroa bestean. Egia borbilak esaten dituen tipo jatorra. Eta ez gaur egunkarietan agertuko den **Bush** horren modukoa. **New Orleans** hegazkinetik ikusten izan zen atzo, irailaren 11n. Hain justu **New York** hirian orain dela lau urte hil zirenak gogoratzen ari zirela. Berak, aukeran, dagoeneko lurrean arrastaka duen irudia garbitzeko asmotan, AEBtan txiro gehien bizi ziren hirira gerturatzea aukeratu zuen. Lotsagabea! **Pedreñakoek** ere gauza bera pentsatuko dute Donostiako estropadan gertatu zena ikusi ostean. Hirugarren baten kexengatik, bandera barik etxera. Hondarribikoak pozik izango dira; aurreko egunetan beste kontu batzuegatik protagonista izan badira ere, azkenean berdez jantzi ziren Donostiako kaleak. **Torapia** egiteko moduan gaudela guztiok! **Gatzagako Jonek** bazekien hori eta herritarrek onartu zuten pilotalekuan pantaila erraldoiaren aurrean *torapia* egitea. Ez zen ondo entzuten filma, baina argi geratu zen jenio txar handiarekin egindako pelikula dela. Horretara ohituta gaude eta herri honetan. Badakizue zela den esera: ahuntzak beti larrera!

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Zarauzko Euskal Jaiak

Martitzenean, irailaren 13an, 21:30 eta 23:00etan



Ikustekoa!

